



ARGIA

ANTONIO BAÑOS (CUP)

**"INABILITAZIOAK
AGINTZEN BADITUZTE,
EZ DITUGU
OBEDITUKO"**

BEIRUT PARISEN:
ZIBILIZAZIOEN GERRA
GARAILE

D EREDUA:
NAPARTHEIDARI EUTSI
DIOTEN IKASTETXEAK

OSKORRIREN ARRASTOA
HURRENGO MUSIKARI
BELAUNALDIAN



Datorren astean



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albiste laburrak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailua
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 Asier Blas Mendoza
- 20 Iñaki Martinez de Luna
- 21 Iñaki Barcena
Oihana Etxebarrieta



Israelgo kolono ultraortodoxoak Jerusalemgo Alde Zaharrean.

(ARGAZKIA: ALBERTO PRADILLA)

- 44 LURRAK IRAULIKO GAITU
- 46 DENBORAREN MAKINA
- 47 DENBORA-PASAK
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 ARGIA KOMUNITATEA
- 52 ARGI-KONTRA:
VIVIANE MICHEL
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: ORIOL CLAVERA

SAKONEAN

- 14 | Arantxa Anitua, Laurak Bat euskal etxeko lehendakaria / Miel A. Elustondo
- 22 | Lan-osasuna, mutualitateen negozioa / Iure Eizagirre
- 28 | Antonio Baños (CUP), Kataluniako independentzia prozesuaz / Aritz Galarraga
- 32 | Sergio Yahni, Palestinako egoerari begirada Jerusalemetik / Axier Lopez
- 36 | Lezaun, Abartzuza eta Zudairi. D ereduaren epika / Garazi Zabaleta
- 38 | Txanponaren beste aldeak: Lakari bat babarrun / Itsaso Zubiria Etxeberria
- 40 | Oskorriren agurra. Zerbait geratuko da / Itziar Ugarte Irizar, Julen Leuza

MILA ESKER **ARGIA** KOMUNIKAZIO PROIEKTUAREN BULTZATZAILE NAGUSIAK ZARETEN HARPIDEDUNEI ETA DIRU EKARPENAK EGITEN DITUZUENEI



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Asier Arrate, Axier Lopez, Eñaut Agirrebengoa, Estitxu Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.

Produktzioa: Antza S.A.L.

Harpidetzak: Iraitz Agirre.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Ekoizpenak: Berdaitz Goia. **Idazkaritza:** Aloña Soraluze, Bego Zuza.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.

Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048.

Lapurd, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainia: asterokoa, 145 euro; hilean bi ale, 77 euro; hilean behinekoa, 41 euro.

Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro.



PANORAMA

Europaren prezioa

Turkiako kostaldetik 6 kilometrora dago Greziako Lesbos irla. Siriako, Irakeko, Kurdistango, Afganistango... errefuxiatuek Europara heltzeko txalupa txikietan egin behar dute aurrera. 1.200 eta 1.500 euro artean ordaintzen dituzte "bidaiaren" truke. Gauzez edo itsasoa harrotuta dagoela eginez gero, prezioa jaisten da itota hiltzeko arriskua handitzen den neurri berean.

Argazkilaria: Javi Julio



François Hollande

“Frantzia gupidagabea izango da Estatu Islamikoaren basakeriekin”

argia.eus-en ikusgai



**Bide berriak:
elkadura
burujabetza**

Badakigu zer jaten dugun? Nondik datorren? Nola eta nork ekoizten duen? BiziLur eta EHNE Bizkaia elkarteek egindako dokumentala.



Gogoan izan

Alzheimer gaitza duen pertsona batek euskaraz bizitzeko duen nahia eta determinazioa ditu ardatz Behatokiaren lanak.



DAVID JULIÁ ETXABE

Paranoia xenofoboa, politika murriztaileentzako aitzakia

Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Parisko atentatuen moduko gertaeren aurrean, zergatik daude musulmanak kasik derrihortuta Estatu Islamikoa ez dela euren ordezkari argitu behar izatera, baina esaterako eraso xenofobo ugariaren aurrean zuri europarrak ez dute etengabe argitu behar erasoak ez dituztela ordezkatzeko? Zergatik baliatzen dira atentatu hauek migrazio politika are gogorragoa eskatzeko eta errefuxiatuen etorreraren inguruan beldurra zabaltzeko, atentatugileak europarrak baziren? Zergatik, sakoneko arazoei heldu beharrean, erabaki populista xenofoboak astintzen dituzte agintariak? Esaterako, “gorrotoa zabaltzen duten” meskitak ixtea, Manuel Valls Frantziako lehen ministroaren hitzetan.

Hain zuzen, halako gertaera lazgarriak aitzakia interesatu ere badirelako, xenofobia-

ren izua harrotuz kontrolaren eta askatasun murrizketaren politiketan sakontzeko – 30 egunez botere osoa ematen dion artikulua indarrean sartu nahi du François Hollande presidenteak–.

Txanponaren beste aldea

Siria, Irak eta Afganistango 24 errefuxiatu izan dituzte etxean, pasa den uztailetik, Alemaniako Dirk Voltz eta haren bikotekideak. Beldurraren mezua ahotan dutenen aurrean, errefuxiatu hauekin bizitako esperientzia aberasgarri eta baikorra kontatu du Voltzek sare sozialetan, eta lau haizetara zabaltzeko da bere idatzia. Hainbat hedabide, agintari eta taldek errepikatutako topiko arrazistei, herritarren artean zabaltzen saiatzen diren paranoia xenofoboari, eta Europaren ustezko musulmanizazio eta islamizazioaren izu funsgabeari esperientzia errealetik erantzun nahi izan die Voltzek.

“Estatu Islamikoa presiopean dago Iraken eta Sirian, horregatik eramaten dituzte erasoak atzerrira”

PATRICK COCKBURN, EKIALDE HURBILEAN ADITUA

Estatu Islamikoak azken hilabeteetan jasan dituen porrot militarrek aipatu ditu kazetari irlandarrak: “Orain badirudi ez dutela borrokatuko amaieraraino AEBek edo Errusiak airez babestutako tropen kontra. Estatu Islamikoaren buruzagiak sinetsita daude Kobanên hain luze borrokatu izana akatsa izan zela (...) Horren ordez, gerrilla taktikak erabiliko dituzte eta gatazka-eremua zabaltzeko nahi izango dute, erasoak atzerrira eramanez”. **COUNTERPUNCH (2015/11/13)**



Beirut Parisen: Zibilizazioen Gerra garaile

Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Marc Trédivic epaileak, hamarkada batez *lutte antiterroriste* delakoan ari-tuak, ohartarazia zuen irailean: *Charlie Hebdo*rena ez zela aperitifa baizik izan, okerreina ikusteko zegoen Frantzia. Paris azaroaren 13 ilunabarrean Beirut bihurtu duten ekintzaile suizidek arrazoi eman diote. Soinean zeramatzen bonbak leherrarazi, autoaren leihatila-tik tirokatu ostatuena terrazetan patxa-dan zeuden jendeak, kontzertu batera hurbildutako gazteak masakratu... eta ondoren, setio egoera. Bat-batean Paris-ko zentroa suertatu da justu bezperan Beiruteko Burj al-Barajneh auzo xiita (40 hildako Estatu Islamikoak eraginak) izan zena, edo Siriako gerra hasierako Damasko, Saddam Hussein erori ostean gerrilla urbanoa hasi zeneko Bagdad...

“Frantzia gerran dago” esan du François Hollandek. Eta gerra beti da gerra: gu edo haiek, gure nazioa edo haiena, gure aldekoa edo kontrakoa, gure alde ez dagoen oro dago gure kontra, gure alde ez dagoen gutarra susma-garria da, laster izan liteke traidorea...

Ezkerren balioak zorrotz zaintzen dituen ATTAC mugimendu altermundia-listak erantzun dio hilabeteotan gerrazaleen kapitain bilakatu presidenteari: “Hau ez da gure gerra. Amerikarrek Irak eta Afganistanen antolatutako honda-mendien ostean, Frantziak gaur Iraken, Libian, Sirian, Malin, Txaden, Nigerren, Erdiko Afrikan, daramatzen interben-tzioek eskualde horiek desestabilizatzen dituzte eta eragiten dute migratzaileak abiatzea Europa den gotorlekua hon-dartzetan itorrikeri agertzeko. (...) Al Kaeda eta Daeshen beren indar inhumano guz-tia eskuratzen dute injustizia horietan. Gerra honek ez garamatza inongo ba-kera, ez baita bakerik justiziarik gabe. Gerra hau bukatzeko gure gizarteak de-sintoxikatu beharko ditugu indarraren mozkorretik, armen, petrolioaren, metal preziatuen eta uranioarenetik”.

Hala ere, ATTAC bezalako aurrera-zaleen hitz burutsuok oihartzun txikia lortu dute gure etxe, karrika eta osta-



Bi lagun elkar besarkatzen azaroaren 13ko puntu ilunena bihurtu zen Bataclan aretoaren kanpoan.

tuetan. “Gure” diogu, euskaldunok fran-tses ere bagaren neurrian eta euskal-dun espainolok NATOren bidez gerra horietan guztietan sartuta gaudenez. Tamalez, herritar askoren, menturaz gehiengoaren, artean errotzen sentitzen dugu Zibilizazioen Talka. Beti agertzen da -kasualitatez- pistaren bat ondoan bizi duguna susmagarri bilakatzeko, izan *Charlie Hebdo* Mahoma iraintzen aritu omen zela, izan Parisko hiltzaileetako batek Siriako balizko pasaporte bat omen zeramala. “Zergatik datoz gure etxera berena inposatzera? Bihoaz beren lurretara hemendik laster”. Urrun geratu dira gaur atzerritarren kontra xaxatzen gaituzten hedabide nagusietatik politikari ustez burutsuek etorkinen beharra saltzen zigutenekoa, omen gure jubilarzioak kobratzeko bermea haien jarduera ekonomikoan zegoelako.

Zibilizazioen Gerra izan liteke neoliberal espansionisten asmakizuna, baina munduko eliteak gupida gabe doaz profezia hura eguneroko agendan nagusitzen. Hamar egun ez dira Tony Blairrek aitortu duela Iraken inbasioan hanka sartu zuela. Hamalau urte, milioika he-riotza eta Ekialde Hurbil osoa hankaz gora jarri ondoren, lerro gutxiko aitor-tza. Baina antzeko formula erabili da Li-bian bezala beste hainbatetan. Eta haie-tan aski eskarmentatu ez zenez, Sirian gauza bera. Ezin esan kasualitatea denik. Geopolitika izango da edo/eta energi itu-rrien banaketa berri baten borroka, bai-

na Zibilizazioen Talkaren logika ezartzen ari dira batetik eta bestetik. Ondorioak pagatu dituzte Beiruten, Parisen, eta etzi pagatuko Europako beste edonon.

Olatu handi batekin aldera dezakegu begien aurrean bizi duguna, itsasgora berezi batekin, edo historiaren auto-pistak egiten duen bihurgune handi ho-rietako bat. Dena aldatzen du Zibiliza-zioaren Gerraren agendak. Egutero bizi ditugun amets, lan, borroka eta asmoen testuinguru osoa mugitzen du. Euskal-dunok konpontzeke dauzkagun gataz-kena ere bai. Nork esan behar zigun, Frantzia salbuespen da, esan nahi baita setio egoeraren atarian, eta Europako gainerako herrialdeak sentitzen gerta-tuko diren eraso berrien bezperetan.

Otoitzak zerbaiterako balio duela bagenek, erretratuko genieke bateko eta besteko jainkoei Sirian potentzia handiek aspaldiko gatazkarik handie-na baretzeko urratsak ematen asmatu dezaten, hura izan dadin berriro oreka berri bat lortzeko lehen mugarria. Baina 2001etik hona potentziok gatazken la-pikoa irakinarazten egiten duten bidea ikusirik, okerragoak ikusteko prestatu beharko dugu.

Agian oraindik garaiz da Europak abian jar dezan bakearen aldeko gizarte mugimendu sendo bat. Pakistandik ha-sita Madrilerainoko jende guztiok gero eta gerra beroagoan harrapatzen gai-tuen Zibilizazioen Talkari aurre egingo dion mugimendu bakezale bat. ■



Nafarroako hezkuntzako oposizioen aferaz bost gako

Xabier Letona
@xletona

Akatsak. Hezkuntza Sailak gaizki bideratu du lan eskaintza publiko hau: bat, gobernu barruko informazioa eta kontsentsua behar bezala landu gabe ateratu; bi, aurreikus zitekeen oposizioaren jarrera, baina herritarren artean –eta bereziki irakasle komunitatean– gaia plazaratzeko komunikazio kanpaina egokia behar zen, denboraz eta sakon garatua. Jose Luis Mendoza sailburuak onartu egin ditu akatsak, hurrengoan ondo egiteko ezinbesteko urratsa.

Hauteskundeak. Abenduaren 20ko Espainiako hauteskunde orokorrak giltzarri dira gai honetan eta, eskura jarritz gero, oposizioa alderdiek baliatu egiten dituzte halako egoerak, batez ere UPN, PSN eta PPK. Baina baita ere Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerraren kasuan ere. Ahal Duguk bere esperientzia eza erakutsi du hasieran, baina jarrera birpentsatu du; Ezkerrak berean jarraitzen du. Funtsean, azken alderdi honek uste du bera parte den gobernuak alor identitarioari pisu sinboliko gehiegi eman diola orain arte eta neurri honekin gainezka egin dute, benetako arazoaren eztabaidari heldu gabe.

PAI. UPNk (PSNren sostenguekin) PAIren patata beroa utzi dio egungo Nafarroako Gobernuari eta honek bi zentzutan bideratu behar du gaia aurtengo

ikasturtean: batetik ea pedagogikoki egokia den baloratu behar du, nola jarraitu edo erreformatu ikusteko; bestetik, irakasle kopuruari dagokio, batez ere A eta G ereduak ikastetxe publikoen %80ra hedatu delako eta horrek gaztelaniazko irakasle elebakarrak soberan izatea ekarri duelako.

Sektoreko Mahaia. 2016 eta 2017rako 430 lanpostuko lan eskaintza publikoa sindikatuak egindako proposamena denez, oraindik bada berau berriskutuko aukerarik, baina sindikatuak oso banatuta daude eskaintzarekiko, eta ez dirudi gehiegi aldatzeko aukerarik egongo denik. Hala ere, elkarriketak eta negoziazioak oraindik badute aukera bat.

Tekniko-politiko. Irakasle kopuruaren bilakaera aurreikuspenek izaera teknikoagoa eman badiote ere, ikuspegi politikoa ere ezinbestekoa da lan eskaintzan: bat, euskarazko behar beste plaza ateratzeko egon den gabezia historikoa orekatzeko; bi, etorkizunerako irakasle elebidun edo eleanitzen esparrua sendotzeko, hauek klaseak edozein eredutan emateko gai direlako; hiru, datorren ikasturtean eremu ez euskaldunetan izango den D ereduaren zabalakundea aurreikusi behar delako. Edozer eginda ere, Gobernuak ez du oposizioaren kritikarik libratuko. Barne orekan eta komunikazio ahalik eta sendoenean jarri behar du bere indarra.

EKONOMIAREN TALAIAN

Aita Santua kapitalismoa babesten




Juan Mari Arregi

Eliza katolikoaren hierarkiak beti izan dira oso diplomatikoak gobernuekiko eta sistema ekonomikoe-kiko euren erlazioei dagokienez, bereziki eskuinetik kudeatuta badaude. Urte asko dira komunismoa eta sistema hori ezarri duten erregimenak arbuizatzeko dituztela, izena bera hizki larriz aipatuta gainera; baina sekula ez dute kapitalismoaren izenik esan. Francisco Aita Santuak, zenbait keinutan hain ausarta izanagatik, oraingoan ere ez du kapitalismoa kondenatu, nahiz eta praktika kapitalistaren ondorioez hitz egin duen.

Joan den astean, Italiako ehungintza arloan dagoen “esplotazio laborala” gaitzetsi du. 2013an zazpi langile txinatar hil ziren lan egiten zuten nabe industrialak su hartu ondoren. Bertan bizi ziren, Aita Santuaren esanetan “kartoiez egindako gelatxo batean pilatuta”. Eta beste hau ere esan zuen: “Bizi baldintza jasangaitzek eta esplotazioak sortutako tragedia izan zen. Bizitzak exijitzen du ustelkeriaren kontra borrokatzea amaierara arte”. Aurretik, Lampedusan, “axolagabetasunaren globalizazioaren kontra” hitz egin zuen Franciscok, eta Sardinian berriz, “munduko sistema ekonomikoak sortutako” krisiaren kontra.

Zergatik Aita Santuak ez du sistema kapitalista bere izenez kondenatzen? Badirudi, aurreko aita santuek bezala, lotuta dagoela ia gehienez katolikoak diren gobernu eta enpresei. Kapitalismoa bere izenez salatuz legitimazioa kendu eta alternatibak bilatzeko aukerak irekiko lituzke. Salatutako heriotzak, axolagabe-riaren globalizazioa, edo munduko ekonomia sistemak sorturiko krisia, eta ustelkeria bera, ez al dira kapitalismoaren egiturazko ondorio? Hori ez onartzea kapitalismoa babestea da.



DANI BLANCO

Garoña berriz martxan jartzeko lehen pausoa eman dute

GAROÑA. Nuclenor enpresak, Santa Maria de Garoñako zentral nuklearreko jabeak, erreaktore ontzietan hobekuntza teknikoak aurkeztu dizkio Espainiako Segurtasun Nuklearreko Kontseiluari (CSN). CSNk onartu egin ditu. Zentrala berriz martxan jarri eta 2031ra arte irekita mantentzeko lehen pausoa izan liteke. Araba Garoñarik Gabe plataformak manifestazioa deitu du abenduaren 19rako.

Adi Gipuzkoako txikizio berriari

Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Donostialdea-Bidasoa Beheko Zatikako Lurralde Planak (ZLP) eragindako udalerrietako hainbat taldek Plan hori bertan behera uztea eskatu dute. 13 udalerriri eragiten die, Irundik hasi eta Usurbil, Lasarte eta Andoainerraino hedatzen den eremuan.

Ondorengo hamarkadetan Gipuzkoako kostaldeko lurraldearen antolamendu osoa baldintzatuko duen plana da hilabeteotan Eusko Jaurlaritzak bultzatzen ari dena. Herritarrengandik oposizio garrantzitsua piztu duten hainbat egitasmo jasotzen ditu bere baitan: Andoainen Sorbabillatik Bazkardora N-1 autobidearen trazaketa berria, Zubietako errauskailua, Abiadura Handiko Trena, Auditx-Akularreko egitasmo urbanistikoa, Donostiako hiri-erdialdetik Metroa eraikitzeko proiektua, eta abar.

Horrekin batera, gaztelaniazko siglekin ezagunagoa den PTPak Lezo-Gaintxurizketan, Zubietamendin, Irunen eta Urumea bilaran estrategikotzat ematen dituen eremuetan, lurralde okupazio bortitza dakarten poligono logistiko erraldoiak, ekipamendu handiak, azpiegiturak eta eraldakuntza urbanisitiko latzak ahalbidetzen dituzten udalez gaindiko planak ezarri nahi ditu.

EUSKARA
NAFARROAN



131.867

euroz lagunduko
ditu Nafarroako
Gobernuak
helduentzako
euskararen
irakaskuntza
sustatzen duten
entitateak.

0
euro jaso dituzte
IKA eta AEK-ko
euskaltegiek
2012tik, UPNren
gobernuean.



KULTURA BONOIA

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Bonoak 400.000 euroko aurrekontua dauka eta erdia (200.000 euro) EITBk jasoko du bonoa promozionatzeko kanpainen bidez.



ELA ETA JAURLARITZA

ELA sindikatuak "lan-prekarietatea eta miseriaren aurka" abiatutako kanpainen harira, hitz gogorrak izan ditu Angel Toña Eusko Jaurlaritzako Enplegu sailburuak: "Ezin da jende konkretua izen abizenekin identifikatu jendarteko gaizkile bailiran, mezu horiek euren irudia kaltetzen dute".



BERDEAN HEZI

Haurrak ingurunearekin harremanean heztearen onurez eta hirietako espazioak berdetu beharaz mintzo zaigu Berdean hezi. Haurrak naturara hurbiltzeko ideiak liburuak, Heike Freire psikologoak idatzia eta Txatxilipurdi elkarteak euskaratua.

Atera soldaduak Ekialde Erdetik



Xabier Letona

@xletona

PARISKO atentatueta bada zerbait oso sinplea: ematen duenak hartu egiten du. Eta zerbait oso konplexua: nola atera gerraren labirintotik? Jakina, ez dute Parisen hildako errugabeek eman, ezta Bagdadeko azoketan edo Siriako herrietan hildako herritar errugabeek ere. Baina Frantzia gerran da Sirian, Afganistanen, Iraken, Malin, Afrika Erdiko Errepublikan... eta horiek guztietako talde islamistak gerran dira Frantziaren aurka. François Hollandek argi azaldu du: "Gerra ekintza da hau". Erantzun gisa Frantziak Raqqa hiriarri egin dio eraso, Estatu Islamikoak okupatutako Siriako hiria. Baina bistan da horrek ez duela ezer konponduko -eta badakite-, ez balezko hurrengo erasorik saihestuko.

Irteerarik bada, baina mundu mailako beste oreka batean oinarritzen da: ez menderatu, ez inposatu, ez eraso egin

Mende erdiz mundua labanaren ertzean izan zuen Gerra Hotzaren ondoren diseinatu zen Pentagonoko laborategi-tan "terrorismo islamiarraren aurkako gerra". Komunismoa garaitu ondoren Satan berria behar zuten AEBek, bere zibilizazio guztiz ahaltsuaren nagusitasuna eraikitzen jarraitzeko. Edo bestela itzulita: munduan barrena behar den ustiaketa ekonomiko eta komertziala egiten jarraitzeko oinarri militarra fin-katzeko.

2001EKO URTARRILA, egungo gerraren labirintoaren sarreretako batean gaude. William Boykin AEBetako armadako jenerala bere aurrean bildutako eliza baptistako kideei mintzo zaie, George W. Bush lehendakari hautatu berrian, Al Gore demokratik baino 337.000 boto gutxiago lortuta: "Zergatik dago gizon hau Etxe Zurian? Iparramerikarren gehiengoak ez du zion botorik eman. Beraz, zergatik dago hor? Nik esango dizuet goiz honetan: hor dago Jainkoak hala nahi izan duelako". (*Por el bien del imperio*, Josep Fontana).

Bederatziz hilabete geroago Dorre Biki-en atentatua izan zen New Yorken. Hilabete geroago etorri zen AEBen erantzuna, Jainkoaren izenean eta "nazio amerikarraren defentsan" George W. Bushen Afganistango talibanen erregimena desegin zuen hiru hilabeteko gerra operazioan. Suntsipen handiko gezurrak erabiliz, 2003an Irakeko inbasioaren txanda izan zen. Milioi bat hildako edo gehiago izan dira harrez gero Ekialde Erdi osoan eta bilioika dolar xahutu ditu menderatu beharreko etsaierik gabe bizitzen ez dakien Mendebaldeak.

Parisko atentatuak bere gain hartu dituen Estatu Islamikoaren agiriaren lehen lerroek hala diote: "Ala handiak esan zuen: eta haiek uste zuten beren gotorlekuek Alarengandik defendituko zituztela. Baina haiek gutxien espero zutenetik etorri zaie eta izua barreiatu du haien bihotzetan". Ala handiaren esku berak eragin zuen Madrilgo 2004ko martxoko eraso, 2005eko Londresekoa edo aurten bertan *Charlie Hebdo*ko erredakzioa txikitu zuena. Egun ez da irtenbiderik ikusten.

IRTEERARIK BADA, baina mundu mailako beste oreka batean oinarritzen da: ez menderatu, ez inposatu, ez eraso egin. Utopikoa dirudi, baina egungo *zibilizazioen gerrak* logika horretan bakarrik ikus dezake argia, egungo norabidean Erdi Aroaren iluna besterik ez baita ikusten. Lehenengo urratsa, beraz, modurik ordenatuenean Mendebaldeko armada guztiak Ekialde Erdetik ateratzea litzateke, ahalegin diplomatikoa lehen lerrora eramanez. Egoera ez da konponduko, baina bai baretu: hildakoak, zaurituak, errefuxiatuak eta sosak milioika aurreztuko dira lehen urrats batean.

AEB buru duten Mendebaldeko gobernuak ez dira logika horretan, ordea: mundu mailako nagusitasun ekonomiko eta politikoak, nagusitasun militarra ere eskatzen die inperioei. Historiako inperio handiei begiratzea besterik ez dago: erromatarrak, espainiarrak, britainiarrak... edo azken mendean estatubatuar-
rrak.

Gerra sofritzen duten herritarrek dira esperantza bakarra, bereziki Mendebaldeko estatuetaoak, haiek egin baitezakete presio euren gobernuak armada Ekialde Erdetik erretira ditzaten eta gure herriak gerra, segurtasuna eta askatasun ezaren logikaren menpe gera ez daitezen.

Zintzoak izateko, alabaina, onartu behar da Mendebaldeko estatuetao herritarren burua eta botoa ez dagoela deseroso nagusitasunaren logika horretan, batez ere gerra norabide ia bakarrekoa denean. Baina ezin uka, halaber, logika horien aurkako herritarrek ere asko direla gure herrialdeetan, agian gehiengo. Horien presioa aktibatzea da labirintorik ateratzeko modu ia bakarra. Konplikatu.

NAHI IZANIKAN ERE

EZ GARA
ESPAINIARRAK
IZATEN AHAL
SEPARATISMOAN
ERORI GABE

ETA HORI
— EDERKI DAKIZU —
DELITUA
DA EUROPOAN

CK

Britainia Handian nuklear berriak ere 'Made in China' dira



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Xi Jinping lehendakari txinatarrek Londresen lurra hartu baino ordu batzuk lehenago iritsi arazi zien oparia ingelesei: Txinak bere gain hartzen duela Hinkley Pointeko zentral nuklear berriaren herena, EDF multinazional frantsesarekin ezkondu. Ez dea iraultza energia nuklear zibila asmatu zuen Ingalaterrak orain Txinaren esku uztea?



Alderdi Komunista eta militar txinatarrek Britainia Handiko zentral nuklearrak kontrolatzen... ez ote da amesgaiztoa kontserbadore neoliberal ingelesentzako? Ez, bada, eta ituna Xi Jianpingekin *txin-txin* eginez ospatu dute Elisabeth erregina zaharrak, Kate noizbait erregina izango denak eta David Cameron lehen ministroak.

Txerriak bezala, dena probetxugarri izango du, omen, EDF Ellectricite de Francek eta China General Nuclear Power Corporationek Nikley Pointen 2025erako lanean edukiko duten zentral atomikoak. Erresuma Batuak behar duen argindarraren %7 ekoiztuko du. 35 urtez megawat 92 libratan eskainiko du -gaurko prezioa halako bi, horra tarta bakarretakoa-.

24.500 milioi libra (34.500 milioi euro) kostako delarik, bere eraikuntzak 100 milioi libra ekarriko dizkio inguruko ekonomiari, 2.000 milioi inguru bizirik egongo den 35 urtetan. Bi milioi kotxek botatakoa adina karbono aurretuko dizkio ingurumenari. 25.000 lanpostu eraikitzen ariko diren urteetan...

Hain da etekinez betea nuklear txinatarrekin lortutako tratua, ezen eta Londresko gobernuak eraiki nahi dituen gehiagotara ere zabalduko baita ziurrenik. Bi aipatzen dira dagoeneko: Sizewell herrian eraiki nahi dena Suffolk eskualdean eta Essexeko Bradwellen eraikitzekoa.

Azken hogeitaz urteotan ez da zentral berririk eraiki Erresuma Batuan. Orain,

ordea, zazpi daudenez iraungitze datatik hurbil eta ixteketan, zortzi berri altxatzea aipatu du Cameronen gobernuak. Somerset eskualdean dagoen Hinkley Pointen, lehengo zaharraren lekua hartu behar du.

European Pressurised Reactors (EPR) motako erreaktoreak aurreikusten dira Erresuma Baturako. EDFk sortutako sistema honek, hala ere, askori piztu dio zalantza bai epe eta bai kosteei dagoenentz. EPR motako bi zentral ari dira eraikitzen Europan, Flamanvillekoa Frantzian eta Olkiluotokoa Finlandian, eta bietan okertu dira kalkuluak, epeak luzatuz eta kosteak espero baino askoz gehiago garestituz.

Herritar askok, berriz, galdetu du ea zertara datozen txinatarrek herrialde batentzako hain estrategikoa den energia atomikoa antolatzen. David Cameronek funtsean soson argudioa ateratu du mahaira: Londresko gobernuak ez daukala dirurik horretan inbertitzeko.

George Osborne, Erresuma Batuko Ogasun ministroak esan duenez, "horretan xahutzen badugu dirua, ez zagu geratuko osasun sistema eta eskolak finantzatzeko". Modu salgarriagoan azaldu nahi izan du Cameron eta kontserbadoreek aspalditik oso garbi utzia daukatena: estatuaren defizita murriztea da lehentasuna. Beraz, energia atomikoa hain ona izanik, horretan inbertitzeko modua konpainia pribatuak erakartzea da.

'Low Cost' atomikoak

The Guardian egunkarian Aditya Chakraborty grafikoki deskribatu du kontserbadoreen amarrua: "Osbornek orain [energiaren] ber-nazionalizazioa aldarrikatzen du, nahiz eta Britainia ez den nazio bati uzteko". Bitxia baita politikari eskuindarrak izatea, azpiegiturak eta konpainia estrategikoak esku publikoetan egotearen aldekoak marxista irrigarritzat mesprezatzen dituztenak berak, energia atomikoa Txinaren esku lagatzen dutenak.

Dio Chakraborty britainiarrek: "Cameronek geratzen zaigun guztia saldu nahi du, ikasleen kredituak barne. Nuklearrena ez da azken errematea baizik. Guk ez dugu eraikiko, ez gara jabe izango, ez dugu kontrolatuko. Baina faktura geuk ordainduko dugu: lanpostuak galduz, zergak desagertuz, neguetan energia garestiago pagatuz".

The Ecologist aldizkarian bi alde oso ezberdinetatik analizatu dute Cameronen erabakia: negozioaren ezaugarri ekonomiko eta politikoak batetik, zentral berriak eta oro har Txina atomoean egiten ari den urratsek eragindako arriskuak bestetik.

Bristoleko unibertsitatean irakasle den Jeffrey Henderson argudiatu du Hinkley Pointen abiatutako bideak pagotxa dakarkielako banku handiei eta ezer onik ez herritarrei. Izan ere nola ulertu militar asko ere kontra dauzkan horrelako itun bat, atari ondoko zentral nu-



ABC Newsen argazki txikian, Xi Jianping lehendakari txinatarra topa egiten laster Erresuma Batuko erregina izan litekeen Kate printzesarekin, azaroaren 10ean Londresen. AP agentziaren irudi handian, zentral nuklear berria eraikitzeko obrak Changjiangnen, Hainan eskualdean.

klearrak atzeritarren (komunisten!) mende uzten dituen?

Hendersonek dioenez, "paradoxa ulertzeko arretaz begiratu behar diogu gobernu britainiarrak Xi Jinping lehendakariarekin daukan *flirtaren* beste osagai bati: bi herrialdeen finantza zerbitzuek elkarrekiko daukaten harreman gero eta estuagoari".

Londresko *City* famatuak aspaldi hartu zuen bere gain Erresuma Batuekiko independentzia. XVII. mendetik espekulazioan berezitu da eta gaur agintean dagoen elite politiko-ekonomikoa *City* horren ordezkaria da, ez herritar britainiarrena. Horregatik Xi Jianpiang eta Cameronek urrats berriak egin dituzte Shangai eta Londresko burtsak elkarri lotzeko.

"Tamalez, Txinako finantza sistema ere beteta dago kreditu ustelez. Hango

atzeraldi ekonomikoak kreditu pozoitsu horiek askoz arriskugarriago bilakatu ditzake. Ez al goaz elkarrekin Txinak sortu eta Britainia Handiak bermatutako hurrengo kolapso ekonomikora?"

The Ecologisten zuzendari Oliver Tickellek azaldu ditu Txinako beroaldi atomikoak mundu osoko ingurumenari dakartzkion arriskuak. Britainia Handira eta mundura zabaltzen hasi aurretik, Txinak aurreikusi baitu bere lurraldean bertan eraikitzea... 400 erreaktore berri!

Munduko nuklearzaleak pozarren daude Pekineko agintariekin: "*China Shows How to Build Nuclear Reactors Fast and Cheap*" titulatu du *Forbesek*. Txinak erakusten digu nola eraiki nuklearrak arin eta merke. 2050erako 350 giga-wattetik gorako potentzia edukiko omen du Txinak, epe horretan eraikita

400 erreaktore, bilioi bat dolar inbertituz.

Zenbat denbora beharko da Fukushima bezalako hondamendi bat ikusteko Txinan? Ez gehiegi, tamalez. Istripu larri bat kalkulatzeko da erreaktoreen funtzionamenduzko 3.000-4.000 urteko. Dio Tickellek suitzarren perfektzionismoarekin luza litezkeela arrisku epeak, baina txinatarrek segurtasunean axolagabekeria handia erakutsi dutela. Zertarako jarri adibiderik...

Arin eta merke, berriz, zeren konturara? Eskulana Txinan merkeagoa delako, ziur, baina Tickellen iritzian "hain merkea soilik gertatu liteke segurtasuna asko murrizteari esker". Alemaniatic nuklearren itxiera Europar zabaltzen ari zela uste genuenean, Hinkley Pointen barrena atzeko atetik datorkigu atomoa. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Arantxa Anitua, Laurak Bat euskal etxeko lehendakaria «Euskaltasuna globalizatu beharraren beharrez anglofonotu egin duzuela iruditzen zaigu»

“Argentinarra naiz eta, Euskadi dut maite...” kantu zaharraren bertsio berria litzateke, Buenos Airesko Laurak Bat euskal etxeko lehendakari andrea kantari.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIAK: ZALDI ERO

Laurak Bateko lehendakaria da mintzo.

Lehendakari izan aurretik ere Laurak Batekoa izan naiz ni beti, txikitandik. Munduko euskal etxerik zaharrena duzu. 140 urte beteko ditu 2017an. Habanan bada gurea baino lehenago ireki zuten elkarte bat [Asociación Vasco Navarra de Beneficiencia, 1877], baina urte askoan batere jarduerarik ez du izan, gureak ez bezala. Gaur egun, 1936ko Espainiako gerra garaiko eta gerra osteko jendearen kutsua du oraindik. Jakina, horrek nahitaez eduki politiko handia ematen dio elkarteari. Esaterako, gu txikitandik panfletotxo ibiltariak izan ginen. “Izena: Arantxa”. “Azalpena: euskalduna naiz, ez naiz espainola...”. Eta tar-tar-tar...

Euskalduna eskuineko erregimen eta diktadura askoren sostengatzaile delakoan da hemen zenbait herritar. Zuk bestelakorik diozu.

Denetarik dago, adiskidea, denetarik dago! Adierazgarria da oso: euskal etxean biltzen den jendea oso eskuina da hango [Argentinako] politikan, baina guztiz ezkerrekoa hemengoari dago-kionean, presoen aldeko borroka, giza eskubideak eta hau eta hura. Ondo da, baina giza eskubideak unibertsalak dira, ezta? Harriagarria zait. Hemen, kaputxa jantziko lukete. Han, eskuin muturre-

koak dira. Ez da erraz ulertzen. Dena dela, gu Laurak Baten haziak gara, bertan ikasi dugu dantzan, kantatzen... hantxe egin dugu bizitza soziala, hantxe senide eta lagunak –fakultatekoak izan ezik–, eta txikitandik ezagutzen ditugu gu baino zaharrago diren horiek.

Laurak Baten giroan haziagatik ere, argentinarrak zarete.

Hori ere bai. Argentinarra, esaterako, oso apasionatua da, lagunak erraz egitekoa. Hortaz, bietarik dugu: alde batetik, euskal sen hori –senideak eta hurreko adiskideak zaindu beharra–, eta argentinarrak giroa, italiar-argentinarra konparazio batera, non buila eta eskandalua den. Gogoan dut behin mutil gazte bat heldu zela Laurak Batera, maleta hartuta, odontologia ikasteko asmoz. Ez zuen non lo egin, eta gure aitak esan zion: “Hi gure etxera!”, eta gurean egin zuen urtea. Eta ez genuen ezagutzen, ez genekien nondik zetorren, euskalduna zela besterik. Horrelaxe!

Diozunez, Laurak Baten bada gune gotor bat, gerrak markatutako generazioak osatzen duena, bi joera politiko dituena, hangoa bata, hemengo beste. Non zabilta zu zeu?

Ez naiz alderdi politiko jakin bateko kide. Oraindik batek ere ez nau behar beste

maiteminarazi, eta ez naiz inoiz afiliatu, ez han, ez hemen. Ideietan sinesten dut, oinarritzko gauzetan, giza eskubideetan. Adibidez, frankismoaren krimenen kontrako kereila heldu zitzaigunean, zalan-tza bihirik ez nuen izan, eta nik bezala, Laurak Batek. Kereilaren alde egiteak konpromisoa dakar, eta asko izu da konpromisoaren aurrean. Neba abokatu jurista dut –Iñaki Anitua–, abokatu erre-konozitua da Argentinan, garantista, eta beraren bidez etorri zitzaizkigun kereila-ren abokatuak. Zuzendaritza batzordean gaia azaldu, eta eztabaidarik ere ez zen izan, aho batez onartu genuen kereila bultzatzea. Egia esan, harriagarri zaigu hemen jendeak ez gogorrage egitea frankismoaren krimenen kontra.

Argentinan baduzue eskarmentua.

Bai, 70eko hamarkadan giro beldurgarria bizi izan genuen Argentinan. Bateko asasinatuak, besteko bortxazko desagertzeak. Baina gaur egun ez dago eztabaidarik. Inork ez du auzi-mauzirik jarriko ez zalapartarik piztuko giza eskubideen inguruan, inork ez dio memoria osatzeko beharrari aitzakiarik jarriko, erreparazio historikoari muzin egingo, biktimak aitortzeari kontra egingo. Inork ez, esan dut, nahiz eta hor diren beti sektore erreakzionarioak, militarrekin komulgatzen dutenak. Halarik ere, gaur egun



Arantxa Anitua

1971, Buenos Aires

Aitaren aldetik Hernanikoa zuen amona, heritik Argentinara joana iragan mendeko 20ko hamarkadaren hasieran, 19 urte zituela; han zituen ordurako ahizpak. Arteagakoa zuen aitona, lehenago emigratua. Laurak Baten ezagutu zuten batak bestea, dantzaldi bat medio. Amaren adarrean, birraitona-amonak Iparraldekoak zituen. Aitona zeharo argentinarr nazionalista izan zen. Emaztea ingelesa hartu zuelarik, etxean ingelesik aditu zedin galarazi zuen. Gurasoei dagokienean, aita dantzari izan zuen Laurak Baten, eta zuzendaritza batzordeko kide hainbat urtez. "Apasionatu hutsa da aita. Haren bidetik jaso ditugu lan, esfortzu eta elkartasun balioak. Ama ingelesa dugu, euskal-ingelesa honezkero. Hark ere lagundu zuen".

Arantxa Anitua abokatu da lanbidez, eta Laurak Bat, FEVA, frankismoaren krimenen kontrako kereila, Onda Vascako *Gabon* irratsaioa, Argentinako kolektibitateen emakumeen foroa eta familia ditu pizgarri, besteak beste.

Argentinan pentsaezina da militarren omenezko monumentu bat ikustea. Hemen, aldiz, Francoren izena edo haren garaikurrak ageri dira zenbait lekutan. Eta botoak ere jasotzen dituzte haren oinordeek. Horixe ez dugu ulertzen guk.

Diktaduraren buruzagiak preso sartu zenituzten Argentinan, Videla eta beste.

Eta kartzelan hil ziren baten batzuk. Harremanak ditut Desagertuen seme-alaben elkarteko zenbait lagunekin, eta juizioak ez direla gelditu esaten didate. Adibidez, behialako Maiatza plazako ama haiek amondu egin dira, eta haien seme-alabak borrokan dira oraindik. 30-50 urte bitarteko jendea da, eta borrokan segitzen dute. Azkenaldiko gobernuek hainbat gauza egin dituzte oker, baina oker bezainbat egin dituzte ondo. Giza eskubideak errebindikatzeari dagokionean, edo erreparazioari, memoriari lotutako gaietan... irmo azaldu dira. Beste arlo bat bereziki zaindu dutena –eta militarren garaian zeharo alboratu zena–, nazioaren goresmenezko keinuak berreskuratzea izan da: banderarekiko maitasuna eta gainerakoak. Argentinarrak oso suhar sentitu ditu keinu horiek, eta oraingo neska-mutilak bide horretatik datoz berriz, oso aberzale. Eta ondo iruditzen zait.

Euskaldunak galdua du harrotasun hori hemen.

Handik begiraturik, iruditzen zaigu euskaltasuna globalizatu beharraren beharrez anglofonotu egin duzuela. Patetikoa iruditzen zaigu, egia esan. *Euska-di-Basque Country* ikusi eta atzerakada itzela eragiten digu. Euskadi amerikarrekin lotzea izugarria iruditzen zait. Adorazio anglofonoa bizi duzuela ema-

Pasioa

“Armeniarrek, juduak, italiarrak –hau da, Argentinako kolektibitate inportanteetakoak–, galdezka etorri izan zaizkigu: ‘Nola egiten duzue, ordea, hainbeste gazte mugiarazteko?’. Euskal festan, ehunka mutil gazte ezpatadantzan, 30 urtez azpikoak. Oso errekonozitua dago gure kolektibitatea han, eta hainbeste gazte konprometituta ikustea zaie harrigarrien”.

Han-hemengo kontuak

“Hango adinekoentzat, lehendakariaren figurak lortu zen zerbait irudikatzen du. Gaur egun Jaurilaritza dago, hegan ageri da ikurrina... Jakina, ondoan besterik ez duela nahiko genuke, harrigarri zaigu bandera espainola ikurrinaren ondoan ikustea. ‘Lasai! Hango kontuak dira!’, esan behar izaten diegu adineko horiei. Lehendakaria ukitzea, berriz, Jesukristo ukitzea iruditzen zaie. Ikaragarri zaie lehendakariak ordezkatzeko duena”.

ten du. Boiseko Jaialdi eta hau eta hura! Argentinan 120 urte daramatzagu euskal asteak egiten. Milaka dantzari biltzen ditugu urtero han eta hemen. Sentimendua halakoxea dugu. Urrian egin zen mundu biltzarrean erakutsi genuen: 25 urte egin ditu *Argentinan euskaraz* programak. Argentinan jaiotakoak ditugu irakasleak. Eredugarritzat jo zuten biltzarrean bildutako beste zenbait komunitatek. “Nola egin duzue?”, galdeztzen ziguten.

Eta nola egin duzue, jakin baliteke?

Pasio handiz. Nola hasi bestela euskaraz ikasten Argentinan? Edo dantzan, edo kantuan? Pasioak biltzen gaitu, elkarrekin egoteko nahiak eta beharrak. Pasioa da. Horretan oso gara argentinarrak, bipolarrak. Oraintxe gara gaina eta bikaina, oraintxe kakaren hurrena! Gure komunitatea oso da pasioduna, pasio handiz egiten ditugu gauza guztiak. Hargatik hainbeste psikoanalisi Argentinan. Kar, kar... Han ez dago neurririk, zerotik zorora jo ohi dugu, eta oraintxe, esaterako, Latinoamerikan izan zitekeen herrialderik atzerakoiena izatetik bertako Holanda izatera igaro gara. Orekari eusten lanak guk!

Laurak Bateko lehendakari eta FEVAko lehendakariorde zaitugu.

Ardura handia da, eta urguilua ere bai. Abokatua ere banaiz, eta badakit noiz ari naizen Arantxaren izenean, eta noiz Laurak Bateko buruaren edo FEVAko (Euzko Argentinar Bazkun Alkartasuna) lehendakariordearen izenean. Bat nator Laurak Bateko estatutuekin, aberztasuna azpimarratzen baitu. Duela bost urtetik hona naiz Laurak Bateko buru, 40.a elkartaren historian, eta



“Argentina latinoamerikan izan zitekeen herrialderik atzerakoiena izatetik bertako Holanda izatera igaro da”

lehenbiziko emakumea goren graduan. Emakumearekiko errekonozimendutzat hartu dut, emakumea ezinbestekoa izan baita Laurak Baten ibilian: euskara irakatsi dute, dantza, ohitura eta legeen berri eman dute, erbesteratzearen eta deserrotzearen historia kontatu digute –itxaropenez beterik beti–, eta horrek diaspora batu, indartsu, jakitun eta bizia egin gaitu. Guk ez dugu [Espainiako] gerraren historia ahaztu.

Zer diozu Gasteizen egin zaharra ez den diasporaren mundu biltzarraren gainean? Inoiz baino isilago igaro da, inoiz baino itxiago. Krisiak ere izango zuen eraginik, beharbada.

Hemen krisiari buruz hasten zaretenean barre egiten dugu Argentinan. Krisia? Zuek ideia aztarrenik ere ez duzue zer den krisia! Giroa baretu dela ematen du, baina ez duzue krisiaz hitz egiterik. Siriakoa da krisia, edo Haitikoa. Hemen

ezin duzue krisiaz hitz egin. Biltzarra dela eta, arlo pribatuan baliatu genuen gehiena, gosari garaietan, ibilaldietan, han eta hemen. Hegoamerikarrak oso irekiak gara mihiari eragin behar zaionean, eta halaxe egin genuen informazio trukea, giza harremanen bidez: “Nola ari haiz hi? Hiri zer funtzionatzen din? Nola asmatu duzue batean eta bestean?”. Biltzarrean bertan ezin egin izan duguna, zehar bideak baliatuz egin dugu. Halaxe



Antzuolako
Euskara zerbitzua

Herriko plaza, 8
20577 ANTZUOLA
☎ 943 766 246 • Faxe: 943 787 100
euskara@antzuola.net
www.antzuola.net

Zorionak ARGIA!
*Jarrai luzaz
euskaldunok ilustratzen*



**Bergarako
Udala**



Legazpiko Euskara Zerbitzua
ELKARREKIN HERRIA EGINEZ!

Tel.: 943 737 191 • euskara.le@legazpi.eus
www.legazpiko-udala.info

etorri zitzaigun Kaliforniako mutikoa: “Nola moldatu zineten *Argentinan euskaraz* programa gauzatzeko?”.

Giza harremanen sarea.

Ez dago besterik. Begira, jaialdi bat egin genuen maiatzean: “Buenos Airesek Euskal Herria ospatzen du” zuen izena. Hiriko udalak urtero kolektibitate bati eskaintzen dio egun bat. Aurten, guri etorri zitzaizkigun, ondo iruditzen ote zitzaigun galdezka. Guk geure baldintzak jarri –Espainiako enbaxadorek ez, Espainiako banderarik ez, hau, hori eta hura ez, ez, ez...–, eta baldintza haien pean pozik parte hartuko genukeela. Bestela, ahazteko. Bestalde, jaiaren arrazoia ezinago egoki iruditzen zitzaigula esan genien. Egun oso bat ohi da. Maiatza hiribidea moztu zuten, 200, 300 metro txosnaz eta agertokiz bete genituen, hedabidez mukuru zegoen –nahiz eta hedabideak beti uzkur diren euskal albisteak zabaltzen, badakite-eta zelan dutela beti Espainiako enbaxada–... hitz batean, jai biribila. Ez alferrik. Jaiaren bezperan, denak lanean afaneko, eta telefono deia. Hariaren bestaldetik: “Espainiako enbaxadatik hots egin dute!”. “Bai, eta?”, nik. “Jaia egiteko baldintzak elkarrekin hitzartuak ditugula esan diegu”. “Aurrera, orduan”, erantzun nion. Hernaniko festak ematen zuten, baina Maiatza hiribidean. Dena ikurrinaz bete, mikroa zabalik, nahi genuena eta gehiago esan genuen. Jakina, hemendik 14.000 kilometrora errazago ere bada. Kontra egingo dizunik ez duzu han.

Ez zarete Boiseko Jaialdiren inbidiatan.

Pentsatu ere ez! Edukiz beterik dago gure jaia. Festaren une bat iritsi zen non zeharo nekaturik nengoen, baina gure kolektibitate osoa han ikusi eta indarrez bete nintzen unean bertan: presoen aldeko aldarria batean, Holandako erregina Maxima Zorregietaren aita bestean –denik eta gauzarik atzerakoiena, Juan de Garay elkarteko presidentea–, eta neure buruari esan nion: “Une honetako argazkia nahi dut”. Bai, zeren eta elkarrekin bizi gara denok, presoen aldekoak eta erreginaren aita, eta erdian, milaka dantzari ezpatadantz. “Hau da diaspora”. Hunkigarria da, arima betetzeko modukoa. Gure jendea pozik, hedabideak honetaz eta hartaz galdezka. Badakigu nor garen, zer garen, nondik gatozen... Hemendik atzera, lau haizetara



Azken hitza: aita santua Laurak Baten

“Errepublikan eman zuen azken meza gurean eman zuen Bergogliok [Frantzisko aita santua], San Ignazio jaiaren barruan. Haren eskuin eskua Laurak Baten hazi zen, Sukunza monsinorea. Honen aita alargundu zenean, Laurak Batek garbitzaile lana eman zion eta bertara ekarri zituen seme-alabak. Haren seme Sukunza monsinorea tarteko, Bergoglio Laurak Baten izaten genuen beti San Ignazio meza esaten. Argazkietan ikurrina eta guzti ageri da”.

zabaltzea dagokigu. Horixe dugu orain helburu Laurak Baten, egiten duguna ondokoari erakustea. Urtean bizpahiru aldiz, irtetea. Ondorioak zinez onuragarriak dira.

Boiseko berri heldu zaigu, nekez Buenos Aireseko berri.

Askotan hitz egin dugu horretaz gure artean, talde terapia egiten dugunero. 140 urteko historia dugu, sasoi batean hemengo Jaurlearitzari han eutsi zioten, baita diruz ere. Ez dago inori haserre egiteko arrazoirik, memoria historikoa berreskuratzea besterik. Egonda nago hemengo osaba-izebei gerrako eta gerra osteko historiak aditzen. Guk *procere* handitzat izango genituzke Argentinan. Hemen, aldiz, gauzak ahazteko amorrazioa dagoela ematen du. Sintomatikoa da: zikinkeria alfonbra azpian gorde eta aurrera egiteko antsia dago hemen.

Ba ote?

Bai, bai, eta kereilarekin ere ikusi nuen nik hori. Kereilaren abokatuak etorri zitzaizkidan. Tartean, Zamorano doktorea, gizon adinekoa, bizitzarekin konprometitua zeharo. Gure diktaduraren garaian larrua jokatu zuena. Kartzela barruraino sartu zen, jendearen bila. Zoragarria, gizona. Etorri eta esan zidan: “Zorretan naiz, kereila abiarazi dugu baina uste dut ez dugula askorik aurreratu euskaldunei dagokienean”. “Zorretan zu? Munduan zeu izan zara-eta auzia mugitu duen bakarra! Kereila abian da, horretaz ari dira hizketan han eta hemen. Baliteke Espainiak estradi-ziorik ez ematea, baina jendilaje hori deseroso sentiaraziko dugu, behintzat. Ez da gutxi”. Kereila Argentinan jarri da martxan, ez hemen. Zertan da hemen jendea, zergatik ez dio horri lehenago ekin? ■

Manipulazioak eta omisioak

Lehenengo globalizazio ekimen Britainiar inperioren nagusitasunpean eman zen, erregulaziorik gabeko merkatu kapitalista mundu osoan barreiatzeko. Saiakera inperialista hark erantzun anizkoitza izan zuen estatuen, herrien eta langile klaseen partetik. I. Mundu Gerrak lau hamarkadetako gatazka militarren aroa ireki zuen ekimen hura lurperatu zen arte. Ondoren, Berlingo harresia erori eta bigarren globalizazio ekimen saiakera etorri zen, AEBek gidatua. Lehengaien eta merkatuen konkistek esku-hartze politiko, ekonomiko eta militarrek behar izan dituzte, batzuetan nazioarteko legedia hautsiz.

Biolentzia eta kaosa bilakatu dira globalizazio kapitalistaren bigarren olatuko adierazle nagusiak, eta lehenengoari gertatu zitzaion bezala, erantzuna ailegatu zaio bigarrenari ere. Potentzia erregionalek globalizazioari mugak jarri dizkiote eta nazio-proiektu herriarrek zuzenean eraso dute klase xeheen interesak defendatzeko. Erresistentzia horrek esplikatzen du parte handian Mendebaldearen erantzun desesperatua erresistenteak eta hauen inguru geografikoak desegonkortzeko: estatu kolpe bigunak edo gogorrak sustatuz eta babestuz; oposizio taldeak armatuz, gerra zibilak bultzatuz eta bere etsaien aurkako *proxy* gerrak (delegatutako gerrak) bilakatuz; azkenik, herrialdeak bonbardatuz eta behar bada okupatuz ere bai.

Desegonkortze politiken ondorioek herrialdeen suntsiketak, hildakoak eta errefuxiatuak utzi dituzte. Kostu handiegia Mendebaldeko barne trinkotasuna ez ahultzeko, horregatik propaganda eta manipulazio politikoa indartu da. Lehenengo, globalizazio kapitalistaren aurkako etsaiak identifikatu, eta ondoren, demoniatzeko eta estigmatizatze kanpaina hasten da errealtatea manipulatuz. Hedabide eta iritzi sortzai-



Asier Blas

EHUKO IRAKASLEA

@AsierBlas

Biolentzia eta kaosa bilakatu dira globalizazio kapitalistaren bigarren olatuko adierazle nagusiak, eta lehenengoari gertatu zitzaion bezala, erantzuna ailegatu zaio bigarrenari ere. Potentzia erregionalek globalizazioari mugak jarri dizkiote eta nazio-proiektu herriarrek zuzenean eraso dute klase xeheen interesak defendatzeko

le gehienak Mendebaldeak izendatu dituen etsaiez zaborra botatzen hasten dira uneoro. “Al Assaden erregimen kriminala” adjektiboa seriean dator eta berriz, segidan “Obama administrazioa” erabiltzen dute AEBek Afganistanen Mugarik Gabeko Medikuen ospitale bat bonbardatu eta gutxienez 30 hildako eragin zituen egunean bertan. Ez, editorialen lerroburua ez zen izan “Obama: hemen da munstroa”, ez, horrelakoak Putinentzat gorde ziren, Ukrainako estatu kolpea gertatu zenean errusiar presidentek harturiko arbuio jarreragatik.

Ez zitzaion munstro deitu Odesan hamarnaka pertsona erre eta erail ziztuzten ukrainar nazionalistei. Petro Poroshenkoren erregimena ez da kriminal bezala kalifikatu, nahiz eta Ukrainako ejertzitoak Donbasseko herritar zibilen kontra egiten dituen bonbardaketen harira, Ukrainako presidentek konkista gerra hasi eta publikoki haxe esan zuen: “Gure seme-alabak eskoletara eta hartzaindegietara joango dira, beraien seme-alabak sotoetan eseriko dira, ez baitute ezertarako balio”.

Aurten Poroshenkok zeharka onartu du estatu kolpe bat egon zela Ukrainan: Auzitegi Konstituzionalari eskaera formal bat egin dio ebatzi dezan Viktor Janukovitxen kargu gabetzea ilegala izan zela. Baina, hedabideek ez dute horrekin zalapartarik sortu. Iritzi sortzailerek Maidaneko masakreaki buruz bota zuten zabor manipulatu errektifikatu ez duten bezala. Garbi dago frankotiratzailak estatu kolpea eman zuen oposizioaren parte zirela, are gehiago, afera honen arduradun gisa Ukrainako estatuak jazarpen judizial bat jarri du martxan Svoboda eskuin muturreko alderdiko diputatu ohi batzuen kontra. Baina horretaz inork ez du hitz egiten, gutxi hitz egiten duten bezala Suedia osoan errefuxiatuen aurka burutzen ari diren hamarnaka eraso sutzailerekin. ■

Zer ote euskara normalizatzea?

Behin baino gehiagotan entzun dut azken urtean normalizazio kontzeptua ez dela egokia euskarari buruz dugun xedea islatzeko.

Lluís Aracil-ek sortutako hizkuntza-normalizazio kontzeptua, askotan baliatu du euskararen aldeko mugimenduak. Horren adibideak dira, besteak beste, Eusko Legebiltzarrak 1982an onartu zuen Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko Legea eta, 1997an, Euskararen Unibertsoa Jardunaldietan bultzatu zen Hizkuntzaren Normalizaziorako Plan Estrategikoa.

Hala ere, nago ez diogula pentsatu nahikorik eman bere esanahia argitzeko edo, hobeto, guk horrekin zer ulertzen dugun zehazteko. Neure buruan argi pixka bat egin nahirik, Soziolinguistika Eskuliburuaren edukietara jo dut, eta hemen jasoko diren aipuak hortik lapurtu dizkiet zenbait egileri.

Zer da, bada, hizkuntza-normalizazioa? Battitu Coyosek jasotzen duenez, minorizazio-egoeran dagoen hizkuntza, egoera horretatik atera eta gizarte-esparru eta funtzio guztietara hedatzeko prozesua. Bide beretik, Sánchez Carrión *Txepetx*-en arabera, normalizazioaren helburua hizkuntzaren garapen osoa lortzea da; alegia, garaian garaiko funtzio guztiak bete ahal izatea.



Iñaki Martínez de Luna
SOZIOLOGOA

Normalizatzea deitu edo beste zerbait deitu, zer da, utopia eta errealismoaren artean kokatuz, euskararentzat lortu nahi duguna? Badugu zer pentsa eta hausnartu

Egia da, beste termino batzuk ere erabili izan direla gurean, hala nola euskara biziberritzea (EBPN, 1999), euskara sustatzea (ESEP, 2013) eta hizkuntza-berdintasuna (GFA, 2015). Galdera da nolako esanahia duten kontzeptu horiek; alegia, normalizazioaren

baliokideak ote diren edo, bestela, zein den, kasuan kasu, termino bakoitzak jomugatzat jartzen duen asmoa. Zein da, erabiltzen den terminoa edozein dela ere, lortu nahi ditugun maila soziolinguistikoa eta politiko-juridikoa?

Ondoren laburbiltzen dira Imanol Larrea eta Paul Bilbaok hizkuntza gutxitu baterako aurreikus dituzten aukerak. Gutxieneko helburu soziolinguistikoa litzateke euskarak erabilera eremu guztiak bere egin dezan. Helburu ertaina: aurreko mailari gehitzea euskaraz ez dakiten herritarrak elebiduntzea. Gehienezko helburua: aurreko biak eta aloglotak (beste hizkuntza bat duten etorkinak) gure hiztun-komunitatean integratzea. Eta ondoren datoz marko politiko-juridikoaren gainean aipatzen dituzten hiru aukerak. Gutxienekoa: nahi dutenek hizkuntza gutxitua alor guztietan erabili ahal izatea; hots, hizkuntza-eskubideak bermatzea. Ertaina: aurrekoari gehitu hizkuntza gutxitua erakunde guztien hizkuntza ofiziala izatea. Gehienezkoa: hizkuntza gutxitua hizkuntza ofizial bakarra bihurtzea.

Normalizatzea deitu edo beste zerbait deitu, zer da, utopia eta errealismoaren artean kokatuz, euskararentzat lortu nahi duguna? Badugu zer pentsa eta hausnartu. ■



38.
EUSKAL
ZINE BILERA

LEKEITIO
2015

**AZAROAREN
22TIK 29RA.**

ZINEMAK
120
URTE

















Alternatiben urriak



Iñaki Barcena
EKOLOGISTAK
MARTXAN-EKO KIDEA

Baionatik Bilbora: inor gutxiak espero zeza-keen Baionan 2013ko urriaren 6an ikusita-koa bi urte geroago Bilbon, 2015eko urriaren 24an errepika zitekeenik. Nik neuk ARGIA hau-xe idatzi nuen: “Ziur nago, Alternatiba eguna hemendik aurrera erreferentzia politiko nabarmena izango da Frantziako Estatuaren ezkerrentzat, egin duten lana eta lortu diren emaitzak eredu-garriak izan baitira. Ez nago hain ziur lorpen hori gure Hegoaldean antzerakoa izango denik. Male-ruski, gure kultura politikoan ez da normala, kau-sa komun baten aurrean –aldaketa klimatikoa, kasu– hainbeste jende desberdin biltzea, sigla eta jatorrien gainetik. Hori ez da denbora txikian lortzen, hori lan sendo eta luzearen emaitza da”. Urte bi nahiko izan dira Euskal Herriko Eskubi-de Sozialen Kartak testigua hartuz gero Bilboko Alde Zaharrean milaka lagun biltzeko eztabaidan, tailerretan, txosna eta karpenterako pasean edota dantzan. Nola “kutsatu” dizkigute Iparral-deko ekologistek euren lan egiteko metodoak eta tresnak? Hor dago arrakastaren gakoa.

Donostian, Zokoan eta Donibane Garazin: Pozoia dosi txikietan etorri da. Aldez aurretik bes-te alternatiben herrixkak izan dira. Donostian eta Zokoan joan den ekainaren 6an bi pilula, eta gero Donibane Garazin urriaren 10ean beste bat. Go-go bete da. Amesten genuena gauzatu da. Bi urte

aurretik idatzi genuen: “Baiona Ttipiko karriketan bezala, Alternatiba egunak Euskal Herriko beste herri eta hirietan errepikatzea, beste mundu po-sible horren aldeko urrats sendoa litzateke. Hala bedi!”. Orain badakigu sindikalistak eta tokiko enpresak, feminista gazteak eta jubilatua, ekolo-gista zein antimilitaristak ekonomialari alterna-tiboekin bateratu ditzakegula, baita des-hazkun-dearen aldekoak, euskara zaleak, bertsolariak eta artistak, kantariekin ere bildu, baldin eta formak, mezuak eta helburuak horizontalki eta gardenki helarazten baditugu, hierarkia eta lehentasunik gabe, dibertsitate aberasgarrian.

Klima aldaketa dakar: Aldaketa klimatikoa-ren auzia izan zen/da hasierako aitzakia. Arazo potoloa benetan, heltzeko zaila dena. Zer egin lezake hiru milioi biztanleko herri txiki batek erronka erraldoi horren aurrean? Nire aburuz Baionan martxan jarri zen eredia oso baliogarria da. Klima aldaketa ez da ekologisten arazoa soi-lik, zibilizazio oso baten galdera ikurra ere bada. Erokeria litzateke pentsatzea arazo teknologiko baten aurrean gaudela eta irtenbidea zientziala-rien eskuetan dela. Gure eztabaidetan argi geratu den moduan, alternatiba ez da hari bakar batetik etorriko, hari, kolore eta jostun desberdinak behar ditugu krisi klimatiko-energetiko-kapita-lista eta patriarkalari eusteko. ■

Bada garaia



Oihana Etxebarrieta
KAZETARIA
@BetaurrekoMorea

Azaroak 25, emakumeenganako indarkeria-ren kontrako nazioarteko eguna. Hitzez, ar-gazkiz, deklarazio instituzionalez, kartekez, txapez, puntu morez, izenez, zenbakiz... betetzen zaizkigu kaleak egunaren jiran. Eta gero? Isila-suna. Hildako bat dagoenean edo eraso “larriren” bat gertatzen denean soilik apurtzen den isiltasu-na.

Baina indarkeria sexista pairatzen dugun gorputzok nahikoa dela aldarrikatu dugu behin baino gehiagotan, eta horretarako kalera atera gara, *performanceak* egin ditugu, biluztu gara eta jantzi. Jantzi ditugu pelukak eta buru-berokiak. Hildako emakumeak irudikatu ditugu lurrean,

edo eltzeak hartuta soinu ateratzen ibili gara. Eskoletara joan gara hezkidetzak ikastaroak ema-tera, maitasun erromantikoa behatzez seinatu dugu eta gure buruak aztertzen eta lantzen aritu gara, batzuetan negarrez eta besteetan barrez (bai... zenbat barre egin dugun barruan dugun Pantoja ateratzerakoan). Milaka modutan egin diogu aurre matxismoari, milaka modutan hel-tzen delako gure bizitzetara.

Baina gurea al da aldaketaren ardura? Eraso-tzen gaituztenoi dagokigu gizartea mugiaraztea? Ardurak konpartitu eta banatzen hasteko garaia da. Hitzetatik ekintzetara pasa gaitezen, bada ga-raia. ■

MUTUALITATEAK OSASUNAREN NEGOZIOA, GERO ETA HANDIAGO

Lan osasunaz aritzea askotan mutualitateez hitz egitea dela dirudi, azpiatal txiki bat besterik ez badira ere. Enpresaburuek sortu zituzten, irabazi asmorik gabe, laneko gertaerak kudeatzen laguntzeko. Urteen joanean, gero eta eskumen gehiago eman zaizkie eta gaur egun lan mundutik haragokoa da euren eragina.



Iure Eizagirre

Azken urtean mutualitateen jardunari lotutako bi lege berri onartu dituzte Espainiako Estatuan, aurretik egiten ziren praktikak arautuz, nolabait: ezintasun prozesuen lehenengo urtearen kudeaketa eta kontrola arautzeko Errege Dekretua onartu zen iazko azaroan, eta Mutualitateei Buruzko Legea urte honen hasieran, lehenagoko arauetan sakabanatuta zegoena era ordenatuan bilduz. Hainbat berrikuntza dakartzate legeok, esaterako Gizarte Segurantzako Lan Istripu eta Gaixotasun Profesionalekin Mutuak deitzeari utzi eta Gizarte Segurantzaren Mutualitate Laguntzaileak izendapena hartzea.

Sindikatuak lege horien aurka agertu dira, atzean osasun sistema pribatizatzen jarraitzeko asmoa ikusten dutelako. ELA eta LAB sindikatuak, adibidez, mutualitateei eman zaizkien eskumenen kontra egin zuten joan den apirilaren 28an, Laneko Segurtasun eta Osasunaren Nazioarteko Egunean. Mu-

tualitateek patronalaren interesak defendatu eta enpresen lan zikina egiten dutela salatu zuen orduan ELAk. Gainera, osasunaren defentsarako elkarteak erakundeon aurka azaldu dira, herritar aktiboen eta gainerako herritarren artean ezberdintasunak ezartzen dituztelakoan.

Mutualitateak zertan eta nola aritzen diren ezagutu aurretik, komenigarria da argitzea beste batentzat lan egiten duen pertsona batek bere osasunari lotutako bi gertaera mota jasan ditzakeela: gertakizun profesionala edo gertakizun arrunta. Lehenengoa lan eremuan gertatutako gaixotasun eta istripuei dagokie eta bigarrena handik kanpo gertatutakoei –azken hori, hortaz, ez da lan osasunaren esparruan sartzen–. Enpresek, legez, bi kasuei erantzun behar diete langileei, baina gertaera mota batekoa edo bestekoa izateak baldintza dezake langileak jasoko duen osasun arreta.

Zergatik diogun hori? Bada, enpresak erabakitzen duelako gertakizun horietako bakoitza modu publikoan –Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren bidez– edo pribatuan –mutualitate bidez– kudeatu. Enpresa komitearen jarriera agertzeko txosten bat ere eskatzen du legeak, baina ez da loteslea.

Gertakizun profesionalek arreta pribatua

Datu zehatzik ez dagoen arren, enpresek apenas kontratatzen duten gertakizun profesionalen kudeaketa publikoa. Hego Euskal Herrian, enpresen %98 inguruk gertakizun profesionalak mutuekin kontratatzen dituztela dio Ibon Zubiela LAB sindikatuko Lan Osasuneko ordezkariak. Ondorioz, mutualitatea arduratuko da gaixotasunaren jatorria zehaztu, baja eta prestazio ekonomikoa eman, osasun arreta eta prestazio farmazeutikoa eskaini eta azkenik, alta emateaz.



Gaixotasunaren jatorria zehazteak ondorengo prozesu guztia baldintza dezake, Cristina Marcosi gertatu bezala. Auto batzuen piezak errebisatzen egiten du lan eta aulki batean eserita horretan ari zela, jaiki eta belauneko hezuraren hotsa entzun zuen. Minez, mutualitateko medikuarengana jo zuen. “Heldu orduko oso ongi hartu ninduten, erradiografia bat egin zidaten eta bihurritu gogorra nuela esan. Erradiografian ez zen ikusten baina lotailu-haustura izan nezakeen susmoa zuten. Baieztatzeko erresonantzia egin beharra zegoen. Belauna horrela edukita, baja begiak itxita emango lidakeela esan zidan medikuak, baina aulkitik altxatzean egin nuenez, ezin zidala eman, beraiek politika hori zutela, altxatzean izanda ez dela lan istripua”. Zenbait mutualitate jarraitzen hasi diren irizpidea da, traumatismoek eragindakoak ez diren kasuak istriputzat ez hartzea. Hala baieztatu digute Osaldetik, Osasun Eskubidearen Aldeko Elkartetik.

Marcosen kasuan, lanerako ez zegoez, familia-medikuak eman zion baja, erresonantzia egin zain. Horrek erabat aldatu zuen egoera eta itxuraz gertakizun profesionala zena gertakizun arrunt bilakatu zuen. Eta ondorioz, osasun sistema publikoak (Osakidetza) artatu zuen, ez mutualitateak.

Arruntetan, eragile ezberdinak

Gertakizun profesionalean prozesu guztia entitate berberak kudeatzen duen moduan, arruntetan hainbat eragilek hartzen dute parte, nahiz eta hitzarmena Gizarte Segurantzarekin bakarrik

» Hego Euskal Herrian, enpresen %98 inguruk mutualitateekin kontratatzen dituzte gertakizun profesionalak. Gertakizun arruntak zein profesionalak Gizarte Segurantzarekin kontratatzekeo deia egin dute hainbat sindikatuk

MUTUALITATEEK ZERESAN GUTXI DUTE IPARRALDEAN

Lapurdi, Zuberoa eta Baxenabarren, langile gehienak Erregimen Orokorren barruan sartzen dira: langileen gaixotasun arrunta, amatasuna, laneko istripu eta gaixotasunak, minusbaliotasunak, alarguntasuna eta heriotza barne hartzen ditu Erregimen Orokorra, baita haien senar-emazte eta seme-alabena ere. Medikuarenera egingako kontsulta norberak ordaintzen du eta Gizarte Segurantzako aseguru medikuak kontsulta osoaren edo zati baten dirua itzultzen dio gero. Badago mutualitatea edo bestelako aseguru pribatua kontratatzekeo aukera, Gizarte Segurantzak ordaindu ez dion zati horren kargu egingo litzatekeena. Finen, lan osasuna ez da aparteko atalzat hartzen, berdin jokatzeko da beste edozein gaixotasunekin edo lanetik eratorritakoekin eta ondorioz, mutualitatek ez dute zeregin berezirik.

egin daitekeen. Marcosen kasuan ikusi bezala, osasun sistema publikoko medikuari dagokio osasun arreta eskaini eta baja ematea. Kudeaketa Gizarte Segurantzaren ardura da eta prestazio ekonomikoa ere bai, enpresak mutualitate batekin kontratatu ez badu gertakizun arruntaren kontrola. Hala bada, hari dagokio prestazio ekonomikoa eta bajaran dagoen langilearen egoera kontrolatzea.

Mutualitateen azken urteetako eskaria da gertakizun arruntetako baja prestazioak beraiek kudeatu behar badituzte, altak emateko eskumena izatea, eta lege berriaren zirriborren batek alta moduko bat aurreikusten zuen. Legea onartzeko garaian, desagertu egin zen puntu hori, baina alta eman ezin duten arren alta proposamenak egin ditzakete mutualitateek. Langilearen lehen baja egunetik dute azterketa medikura deitzeko eskubidea –lehen, hamabost egun itxaron behar zituzten gutxienez– eta arrazoitu gabe joaten ez bada, prestazioa galduko du. Azterketa eginda lanera itzultzeko moduan dagoela irizten badio mutualitateak, alta proposamena egin diezaioke familia-medikuari, osa-

sun saileko ikuskaritza medikuaren birtatez. Aldi berean, langileari eta Gizarte Segurantzari jakinarazten zaie proposamena egin dela. Familia-medikuak bost egun ditu alta eman edo proposamena ezezteko –lehen, hamabost egun zituen horretarako–. Azken legee eskertu, familia-medikuak proposamenari uko egin edo erantzuten ez badio, mutuak Gizarte Segurantzari egin diezaioke proposamen bera. Horrek lau egunen barruan erantzun behar du eta epe horretan langileari dei diezaioke azterketa medikua egiteko. Langilea agertzen ez bada, mutualitateak aztertuko du ez agertzearen arrazoiak eta prestazio ekonomikoa eten ahalko du. “Babes falta dago, familia-medikua ez dago mutualitateek egiten dituzten alta proposamenak erantzuteko bakarrik. Aldiz, mutualitateko medikua baja horiek kontrolatu eta altak proposatzeko bakarrik dago. Ez daude baldintza berdinetan”, dio Zubielak.

Egoera horietarako, familia-medikuen eta Gizarte Segurantzako arteko harreman telematikoa lehenetsi da eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaileek gaixoen historia klinikora sarbidea dute. EAEn zuhurtziaz jokatu dutela azpimarratu du Osaldeko Jose Maesok: “Eusko Jaurlaritzak Errege Dekretua interpretatu eta historia klinikorako sarbidea eman zien, baina bajaran dauden aldie-tarako bakarrik”. “Zuk ez duzu gaixoaz profesional gisa eragiten dizuna baino gehiago jakin beharrik” gaineratu du elkarte kide Mario Fernandezek. Hala ere, beste autonomia erkidego batzuetan historia osoa begiratu dezakete.

Lege berriek, halaber, atea ireki diote

» IBON ZUBIELA, LAB:

“Jendea lanera bidali izan dute baita puntuekin ere. Kasu horietan oso zaila da ezer egitea, botere osoa dutelako. Gizarte Segurantzara jo daiteke, baina mutualitateak artatu zaituenez, ez duzu errekurritzeko txostenik”

LAN OSASUNETIK SISTEMA INTEGRALERA

Hainbat ataletan banatu eta bakoitzak bere kudeaketa izateak ulergaitz bihurtzen du lan osasuna Hego Euskal Herrian. Sinplifikatze aldera, lan osasunak bi zati nagusi ditu: lan arriskuen prebentzioa batetik eta osasun arreta bestetik. Lehenengoa guztiz pribatizatuta dago, enpresek beste batzuei ordaintzen diete zerbitzu hori eskain dezaten. Bigarrenean –hemen sartzen dira lan istripuak eta gaixotasun profesionalak, eta ondorioz, baita mutualitateen jarduna ere– kudeaketa eta zerbitzua pribatuak dira, baina finantzaketa publikoa. Beraz, lan osasunaren jarduneko lau atal horiek aintzat hartuta zerbitzuen %75 pribatua dela esan daiteke.

Osasun orokorrean bestelakoa da egoera, prebentzioa eta arreta publikoak direlako. Hego Euskal Herrian medikuarenera joaten garenean, Osakidetza edo Osasunbidea arduratzen dira kudeaketaz, zerbitzuaz eta finantzaketaz. Baina mutualitateek –pribatuak izan arren– hainbat langileren gaixotasun arrunten gaineko kontrola ere ezarri dezakete. Osaldeko ordezkariak uste dute pertsona bere osotasunean hartu behar dela, ez duela zentzurik pertsonen osasuna lanean, etxean edo oporretan egotearen arabera bereizteak. “Badirudi lanekoak ez diren ezbeharrak artatzeko zerbitzuak Estatuaren opari direla eta lanekoak berriz, eskubidea”, diote. Lanean daudenentzako eta ez daudenentzako kudeaketa bakarra defendatzen dute, arreta integrala.

osasun sistema publikoko itxaron zerrendak arintzeko mutualitateen baliabideak erabiltzeari. Osakidetza edo Osasunbidea aurretik baimenduta, bajaran dauden langileei beharrezko proba edo ebakuntzak egin dakizkieke, gero familia-medikuari pasatzeko eta hark ebaluatzeko. “Gertakizun profesionaletatik lortutako soberakinak Gizarte Segurantzara itzuli edo beste zerbitzetan gastatu ordez, gertakizun arruntetan gastatzea da kontua. Itxaron zerrendak gutxitzea positiboa da, baina alde negatiboa ere badu, pertsona jakin batzuen osasuna lehenesten delako: zergatik lehenetsi behar dut 45 urteko langile baten osasun arreta 85 urteko emakumearenaren aurrean?”, dio Maesok.

Bestelako prestazioak eta kexak

Zenbait egoeratan langileak, gaixo egon gabe ere, prestaziorako eskubidea du eta prestazioetako batzuk mutualitateek kudeatzen dituzte: haurdunaldiko eta edoskitzaroko arriskua, autonomoen langabezia, eta minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duten adingabeen zaintza. Maesoren esanetan, kudeaketa publikoa pribatizatzea da hori, “ez osasun arreta publikoa, baina bai kudeaketa administratibo publikoa. Gizarte Segurantzak kudeatu beharrean, mutualitateari ematen zaio eskumena”.

Prestazio horiekin hainbat arazo izaten dela adierazi du Zubiak: “Haurdunaldiko arriskuarenean, aztertu

beharko lukete lanpostu horrek kalterik eragin diezaiekeen emakumeari eta umekiari, eta hala balitz noiztik aurrera. Hilabeteke epea dute mutualitateek eskari horri erantzuteko eta hilabete egoera horretan...”.

Hala ere, beste kexa batzuk ohikoak dira, lesio edo gaixotasunaren jatorria ez onartzea adibidez; “ia beti gertakizun arruntak dira”. Horrek, gainera, lan istripu edo gaixotasunen urteroko zenbaketa erreala ez izatea ekar dezake, osasun sistema publikoan artatzen direnez arrunt gisa kontatzen direlako. Baina jatorria ez onartzearen aferan zerbitzu egin daiteke: familia-medikuen txostenak izango dituzenez langileak, gertakizun aldaketa eska diezaioke Gizarte Segurantzari eta hark onartzen badu, mutualitateak onartu eta bajagatiko prestazioaren aldea ordaindu beharko lioke lehen egunetik.

Marcosek gertakizun aldaketa eskatu zuen, baina Gizarte Segurantzak ez zion onartu eta epaitegiatar joetza zuen azken aukera. Horretarako baina, lesioa bere jardunean egin zitekeela zioen mediku txostena eta epaiketako dirua aurreratu behar zituen. Kasu asko langileek epaitegietan irabazten dituztela argitu dute Osaldekoek. Marcos ez zen haraino heldu: “Ez nuen salatu, beldurra sartzen dizutelako”. Erresonantzia hiru hilabete ingurura egin zioten eta bihurritua baieztatu zen, beraz, nahikoa izan zituen errehabilitazioko hogeai saio.



» **CRISTINA MARCOS, LANGILEA:**
“Belauna horrela edukita, baja begiak itxita emango lidakeela esan zidan medikuak, baina aulkitik altxatzean egin nuenez, ezin zidala eman, beraiek politika hori zutela”

“Hilabete eta erdi egon nintekeen bajaran eta kito. Bitartean, ordea, hiruzpalau egin ditut”.

Gertakizun profesionaletan alta behar baino lehenago emandako kasuak ere ugari dira, Zubiakaren hitzetan: “Jendea lanera bidali izan dute baita puntuekin ere. Kasu horietan oso zaila da ezer egi-tea, botere osoa dutelako. Gizarte Segurantzara jo daiteke, baina mutualitateak artatu zaituzenez, ez duzu errekurritzeko txostenik”. Halakoetan, mutualitateko medikuak Gizarte Segurantzari ordu-ra arteko txostenak eman behar dizkio eta horko medikuak gaixoari azterketa egin beharko lioke. Gizarte Seguran-

tzak gaixoaren alde egingo balu, bajaran mantendu eta mutualitateak ordaindu beharko lioke prestazioa; mutualitatearen erabakia babestuz gero, gaixoak ez luke kobratuko lanera joan gabeko epea.

Gehiegizko kontrolak ere gogoan ditu Zubielak: "Bularreko minbizia, adibidez, badakigu gutxi gorabehera urtebeteko prozesua eskatzen duen gaixotasuna dela. Bada, mutualitateek hilerio jartzen diete hitzordua. Zertarako? Badakite egoera horretan ez dela lanera joango!".

Kotizazioetatik finantzatutako erakundeak

Gizarte Segurantzari egindako kotizazioetatik finantzatzen dira mutualitateak. Erakundeon arreta zerbitzua Gizarte Segurantzako gertakizun profesionalerako kotizazio zehatzetatik finantzatzen dela argitu du Maesok, eta gertaera arruntetarako ez dago kotizazio zehatzik, edo ez behintzat zerbitzuaren beharretara egokitzen denik. Maesoren esanetan, gertakizun profesionalerako kotizazioa altuagoa da gertaera arruntetara baino, arruntak bajak, ezintasun iraunkorra eta beste hainbat

gauzatarako direlako, baina ez osasun arretarako, "hori aurrekontu orokorretatik bideratzen da". Horrek eragiten du herritarren artean hain zabaldua dagoen ikuspegia, alegia, mutualitateek zerbitzu azkarragoa eta hobea eskaintzen dutela: "Mutualitateek diote ez direla pribatuak, ez dutela interes pribaturik, ez dutela irabazi asmorik eta auditoriak egiten dizkietela. Baina iruditzen zaien moduan erabiltzen dute diru publikoa. Eta emaitzak azkarrago lortzen dituzte, eskaini behar dituzten zerbitzuetarako oso finantzaketa ona dutelako, osasun sistema publikoak ez bezala".

Desberdintasun horien aurrean, gertakizun arruntak zein profesionalak Gizarte Segurantzarekin kontratatzeke deia egin dute hainbat sindikatuk, horien artean LABek. "Eredu publikoaren eta pribatuaren artean, publikoa indartu behar dugu. Gainera, osasun sistema publikoaren mesederako izango da". Helburu hori lortzeko kanpaina jarri du martxan sindikatuak eta gertaera guztiak Gizarte Segurantzarekin kontratatu ditu.

Prebentzio elkarteak vs. mutualitateak

1995ean onarturiko lan arriskuen prebentzio legeak, 1997an garatutako arau baten bidez, agindu zuen enpresek lan arriskuen prebentzioa eskaini behar zutela, haiek finantzatuta. Prebentzio horren barruan sartzen dira langileei ematen zaizkien aholkuak eta aldiro egiten zaizkien mediku azterketak. Arau horren harira, mutualitateei prebentzio elkarteak sortzeko baimena eman zitzairen eta batzuek hala egin zuten. Mutualitateekin loturarik ez duten prebentziorako sozietateek 20 urte daramatzate mutualitateen lehia desleiala salatzen. Kexa horien aurrean, legediak hartutako lehen neurria izan zen sozietateok mutualitateen espazio fisiko beretik bereiztea. Arazoak bere horretan zirauen eta lege berriak ebatzi du mutualitateek ezin dutela jarraitu elkarte horiekin, saldu edo likidatu egin behar zituztela ekainaren 30a baino lehen. Zubielaren esanetan, "osasun aseguru pribatuek erosi dituzte guztiak, gauza gehiago saldu ditzaketela esan ahal izateko. Lehen heltzen ez ziren jende mordoarengana heltzen dira horrela, bezero-zorroa erosten ari dira". ■

Europa erakusten digutena baino askoz ere anitzagoa eta ederragoa da

EUROPAKO HERRIEN MAPA EUSKARAZ

Mundua ulertzeko beste begirada bat, ARGIAren eskutik.

 **ARGIA**

Egin ezazu eskaera:

📞 943 371 545 | www.argia.eus/denda | denda@argia.eus



Etxe, eskola eta elkarteetarako opari aproposa

ALDIZKARIA
ERABERRITUA



ARGIA

txikitik eragiten

BULTZA kazetaritza independentea

Harpidetu:

ARGIA astero, hilean 12 € baino ez.

ARGIA hamabostero, hilean 7 € baino gutxiago.

ARGIA hilero, hilean 4 € baino gutxiago.

Antonio Baños, CUPeko parlamentaria

“BORROKA NAZIONALA UZTEKO GOGOIA DAUKAGU, POLITIKA NAZIONALA EGITEKO”



Kataluniak aspaldian bizi izan duen unerik interesgarrienean harrapatu dugu Antonio Baños. Parlamentuak deklarazio bat onartu berri, errepublika independente bat egiteko borondatea adieraziz eta Espainiako Auzitegi Konstituzionala ilegala dela esanaz. Baina Gobernu osatu gabe, oraindik, Artur Mas hautagaiak ez baitu lortu babes nahikorik.



Aritz Galarra

@aritzgalarra

ARGAZKIAK: ORIOL CLAVERA

Batzuek eman dute epaia dagoeneko: hauteskundeak martxoaren 6an.

Bada, oker daude. Ez dago ezer erabakita. Martxoaren 6koa eszenatoki bat da, noski, gerta daitekeena, beste gauza asko bezala. Baina ez da desiragarria, inorentzat ez. Eta ez denez desiragarria, egingo denik ezin da ziurtzat eman; kontrakoa, denok saiatzen ari gara hori ekiditen.

Mas presidente egin edo prozesuaren amaieraren artean, alternatiba asko dago.

Guk uste dugu alternatibak badaudela. Gainera, dikotomia horretan sartu egin gaituzte. Batetik, Convergència Democràtica de Catalunya (CDC), noski, beren hautagaia presidente izatea nahi dutelako; eta, gero, askotariko interesek. Guk beti esan dugu Mas presidente gisa, hau da, kontseilariak izendatzen dituen Gobernuako agintari nagusi gisa bozkatzearen, eta apokalipsi itxura duten hauteskunde aurreratuen eszenatokiaren artean, aukerak daudela, aukera hobeak, independentismoa indartzen dutenak.

“Konstituzio Auzitegiak agintzen baditu inabilitazioak, logikak eramaten gaitu esatera ez dugula agindu hori obedituko”

“Noski, erreferendum bat egin beharko da, guk urrats hori prozesu konstituziogile baten ondoren kokatzen dugu”

Zein litzateke egokiena CUPentzat?

Gobernu indartsua nahi dugu, egunetik egunera urgentziazkoagoak diren erronka sozialei eta Espainiako Estatuaren erasoei aurre egingo diena. Eta horretarako kontsentsuzko presidentea behar da, gobernu zabala, demokrazia kristautik antikapitalismora doazen 72 diputatuak osoki ordezkatzuko dituen. Gobernuak talde jakin batengana hartzen badu jaidura, ahuldu egiten da, gehitu behar den jendea ez delako gehituko. Ariketa zail eta labaina egin beharra dago, beraz, kontsentsua aurkitzeko, 72 diputatuak eta bozka eman dieten jendea mantenduko dituen, eta independentisten oinarria zabal dezakeena. Ondo ateratzen bada gainera, eta ondo aterako da, Gobernuak erronka guztiei aurre egiteko gaitasuna izango du.

Masen izena, azken batean, anekdotikoa ez ote den; azkenean CDCko beste presidente bat aukeratzeko prest agertu zarete.

CDCri alternatiba den guztia gustatzen zaigu guri. Ideologikoki talka egiten dugu, eta eguneroko borroka politikoan, CDCk azken urteetan garatu dituen politikekin. Esaten dute Espainiako gobernuak behartuta egin dituztela politika batzuk, eta arrazoi guztia dute. Baina beste batzuk oso gustura egin dituzte, eta zerbitzu publikoen pribatizazio proiektuak izan dira, modu ideologiko batean egin dituztenak. CDCren politikak ez zaizkigu gustatzen. Eta Mas sinboloa da, onerako eta txarrerako. Independentista den jende askorentzat sinbolo bat da, eta batzuek independentista jarraitzen dute izaten Masengatik. Baina era berean jende asko ez da egingo independentista Masek alde egiten ez duen arte, ordezkatzeko baitu Kataluniako klase popularren txikitzea. Guk dioguna da: ez ditzagun sinboloak suntsitu, gauditu ditzagun, egin dezagun beste gauza bat.

Eta jendeak inoiz baino gardentasun handiena eskatzen duen honetan, zer dela eta ezkutukeria hori negoziatioetan?

Gisa honetako negoziatioek diskretuak behar dute izan, konfiantzan oinarritzen direlako. Guk esan dugu hitz egiten ari garena ez dugula azalduko, eta ez gara egiten ari, eta aldiz filtrazioak daude alde guztietatik, nori egotzi ez dakigunak. Konfiantza eta diskrezio

gehiago dagoen neurrian, azkarrago egiten da aurrera, hitz egin dezakezula-ko askatasun, naturaltasun handiagorekin. Behin bukatutakoan, dena esplikatutako behar da, noski, eta bilatu behar da CUPeko jendearen bermea eta berrespena. Esan dugu erabakia asanblada batean hartuko dela. Baina bestela hasten dira intoxikazioak, independentzia nahi ez dutenen lana errazten dutenak.

Arazoaren 9ko deklarazioa: berebiziko garrantzia ematen dionik bada, baina baita propaganda neurri dela uste duenik ere. Zenbateraino da garrantzitsua?

Oso erabakigarria da, lehenik Junts pel sí-ren eta gure bide orrian zihoalako, hasieratik argi utzi behar genuen hau ez dela beste legegintzaldi autonomiko bat, eraikuntza nazionalako legegintzaldi batean geundela. Legealdi hau ohiz kanpoko delako. Eta lehen egunean ez baduzu esaten, modu argi eta fermu batean, hasiko ginateke pentsatzen beste gauza batean gaudela. Kontu garrantzitsuak esaten dira bertan, ondorio juridiko-politikoak izango dituzten kontuak, ez da inork kasurik egiten ez dion beste soberania deklarazio bat. Auzitegi Konstituzionalak seriotan hartu duela ikusi dugu, gauza serioa delako. Eta gainera desobedientziaren arreta Auzitegi Konstituzionalean jarri dugu, izan zezakeen izen ona erabat galdu duen instituzio izu emangarri batean, salbuespen egoera eragiteko gaitasuna duena. Oso serioa da talka, eta guk nabarmendu nahi dugu.

Lege ondorioak izango ditu, beraz; aipatzen dira inabilitazioak.

Baina esaten badugu ez diogula kasurik egingo Auzitegi Konstituzionalari, eta Auzitegi Konstituzionalak agintzen

baditu inabilitazioak, logikak erama-ten gaitu esatera ez dugula agindu hori obedituko. Gauza paradoxikoak ere gerta daitezke: nor inhabilitatuko duzu, baiezkoa bozkatu dutenak? Eta norbait abstenitu izan balitz, erdi-inhabilitatua izango zen? Ikusiko dugu zer egiten duten, Auzitegi Konstituzionalak beti harritzen gaitu halakoetan. Egiten dutenaren arabera erantzungo dugu guk.

“Demokrazia kristautik antikapitalismora doazen 72 diputatuak ordezkatzeko dituen gobernua behar da”

Deklarazio horrek Madrilgo indar kon-terbatzaileak indartu ditu?

Ez dugu Kataluniako errepublika egin nahi Madrilen PPk irabaz dezan. Kontrara, arduratzen gaitu Espainiako indar progresistek eta jende normalak, ez diegu desio inondik inora PPren gobernua. Eta pentsatzen dugu, aldiz, Kataluniako desobedientzia, ahalduntze, soberania ekintza hauek, ekarri beharko luketela espainiarren artean, are orain bozka ematera doazela, 78ko erregimena eraldatzeko nahia. Egin daiteke, herritarren mobilizazioekin, ahalduntzearekin, eta instituzioak soberanoak direla sinestearrekin. Gu onik ateratzen bagara, jende askok Espainian, Madrilgo prentsak dioenaren aurka, pentsatuko du bideak badaudela instituzioetan sartzeko eta eraldatzeko.

Eta katalanen botoen %50 gabe abia zitekeen halako bide bat?

Botoen %55 izan bagenu, azaroaren 9ko deklarazioa beste modu batekoa izango zen, errepublika katalanaren aldarrikapena izango zen. Hori ezin dugu egin, eta beste gauza bat egin dugu. Deklarazio bat da: hemendik aurrera, gehiengo independentista duen gainera honek, soberaniaren eraikuntza abiatzen du. Ez da gauza bera, baina aski fermua da.

Batzuen ustez, irailaren 27ko hauteskundeek utzi zuten agindu demokratikoa erreferendum bat egitea da, nahiz izan Kataluniako legeen barrukoa. Askoz babes handiagoa luke, hasteko.

CUPi eman zioten agindua ez zen erreferendum bat egitekoa, errepublika bat sortzera gentozen hona, argi eta garbi. Agindu horri gehitu behar diozu Junts pel sí koalizio boto emaleena: independentziazko bidea abiatzea, erreferendumi gabe tartean, hamazortzi hilabetekoa; behar diren egiturak sortu eta, hamazortzi hilabeteren buruan, prozesu konstituziogilea abiatzea. Guztira ematen dizkigute 72 diputatu, ez dutenak hitz egiten orain erreferenduma egiteaz. Noski, unerren batean erreferenduma egin beharko da. Guk prozesu konstituziogilearen ondoren kokatzen dugu urrats hori, non konstituzioa izan beharko den berretsia, eta hortik aurrera esan dezakegu existitzen dela Errepublika katalana. Erreferenduma orain lortu behar dugula dioenak, eta Espainiako Estatuaren barruan, bada, 2014. urtean nahi badu berriz bizi, ondo. Hori dagoeneko eskatu baitzen, eta esan ziguten guztiz ezinezkoa zela.



GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2015



www.bertsotzale.eus

ZARAUTZ Azaroak 22

Aritzbatalde kiroldegia, 17:30

Finalaurrekoak

Agin Laburu Rezola			
Alaia Martín Etxebeste			
Ander Lizarralde Jimeno			
Beñat Iguaran Amondarain			
Jon Martín Etxebeste			
Unai Gaztelumendi Arandia			

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus webgunean edo egun berean leihatilan.

Laguntzailea: **ARGIA**

Hitz egin dezagun Kataluniako prozesu soberanistaz. Lortu du imajinaezina: zuk aipatu duzun ideologia aniztasun hori, demokrazia kristautik antikapitalismora doana, nolabait ados jartzea. Bada jendea kontsentsu horrek kanpo utz dezakeena? Zerorrek esana da: "Herriak kontsentsua goratzen badu, bat ez etortzea kriminalizatzen du".

Espainiako Trantsizioaren kulturak hainbeste goratu du kontsentsua, ezen bat ez zetorren ahotsa kanporatu egin baitu eztabaida publikotik. Hori ikusi da gai nazionalan, edo sozialean. Hemen ez dela gertatzen esango nuke, independentzian sinesten ez duen jendea oso ondo ordezkatuta dagoelako, ez da inor unionistak kanporatzen ari. Eta, independentista izan daitezkeen arren, kontsentsu horretan beren burua ordezkatuta ikusten ez dutenek, bada, parte hartze politikorako bitartekoak dituzte. Ez litzaidake gustatuko inor kanpo geratzea, kontrara, nahi nuke jakin non dauden bat ez datozen horiek, nire azken urteetako praktika, hain zuzen, izan baita horiengana joatea, entzuteko eta eztabaidatzeko.

Espainiarren etsairik handiena Espainiako Estatu dela esan izan duzu. Zertan litzateke desberdina katalanekiko Estatu katalana?

Antagonikoa izan beharko litzateke. Espainiarrak ez da inoiz izan estatu liberala, Erregimen zaharreko kutsua izan du beti. Herentzia frankista argia du orain. Botere judiziala ez da inoiz araztua izan, ez modernizatua, ez demokratizatua, salbuespeneko tribunalak daude, Auzitegi Nazionala adibidez, Segurtasun Nazionalerako Legea, Auzitegi Konstituzionalaren erreforma. Lurraldeari dago-




kionez ez ditu inoiz ulertu bere diferentziak. Errentari dagokionez, banatzailea izan beharrean, jendea dirua ateratzea du helburu, eta lagunen artean partitzea. Ez da estatu laikoa. Hezkuntza eta kultura ez ditu garrantzitsutzat hartu, gutxiago nazio aniztasunean, borroka egin du Espainiako hizkuntzen aitortza- ren kontra, esaterako European. Orduak pasa genitzake esanez zergatik den Espainiako Estatu ez-eraginkorra espainiar guztientzat.

Independentziarako beste motibo bat: Convergència i Unió (CIU) koalizioaren desagertzea.

Unió Democràtica de Catalunya (UDC) dagoeneko parlamentuz kanpoko indarra da. Prozesuaren aurretik 62 dipu-

tatu zituen CIUk, orain 30 dituzte. Zenbat eta independentzia gehiago, orduan eta CIU gutxiago. CIU ezinbesteko dela? Ezinbestekoak dira CIUren boto emailak. Eskuineko alderdi bat egon behar da, noski, modernoa, sozial-kristaua, Kataluniako eskuin bat. Nahi dugu eskuina egotea, baina ez dezala inoiz agindu. Baina prozesu honetan CIU desagertzea saihestezina da, eta beste gauza desberdin batean berriz eraikitzea ere bai, ustelkeriagatik, alderdi autonomista delako, Madrilerak gauzak eskatze- ra joateko diseinatuta zegoena. Bezero sistema bati lotutako alderdia izan da. Berak ez zuen asmatu sistema, noski, baina autonomismoak parte hartzera eramane zuen. Errepublikakatalanaren hori guztia bukatuko da. ■



EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu pertsonalizatueta adituak

Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14

20003 Donostia · Euskal Herria

© 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com

Sergio Yahni:

“ISRAELI BOIKOT EGITEA DA KRIMENAK ORDAINARAZTEKO EGITURA ERAGINKOR BAKARRA”

12 urte zituela heldu zen familiarekin batera Argentinatik Jerusalemara Sergio Yahni. Ordutik ezkerreko mugimenduekin batera lanean aritu da Palestinako okupazioaren eta apartheidaren aurka. Lau aldiz kartzelan izan da Israelgo armada desobeditzeagatik. Palestinarrek eta israeldarrek osatutako Alternative Information Center (AIC) hedabideko zuzendaria da 1992tik. Askapenaren aurkako epaiketan testigantza eman ostean etorri da Iruñera.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Axier Lopez

@axierl

Nolakoa da Palestinan kazetaritza egitea?

Eguneroko lanean traba gutxi topatzen duzu. Bada jendea kazetariak gustuko ez dituen, beste batzuek oihuren bat botatzen dizute, badira jarrera oldarkorra duten soldaduak, baina halere lan egiteko eta informatzeko askatasuna dugu. Zergatik? Erabateko inpunitatea dutela jakitun direlako. Beste herrialdeak zenbait kontu ezkututzen saiatzen dira, Israel ez.

Nola ikusten duzu Israelgo panorama komunikatiboa?

Informazioa negozio bilakatu zutenean, egia erlatiboa izatera pasa zen. Hedabide handiak negozioarako egiturak dira eta ikusle-ratioa handitzeko lehia basatia dute haien artean. Oso bide sinpleak erabiltzen dituzte horretarako: zirikatzea, sasi-informazioa eskaintzea, na-

zionalismoa sustatzea, histeria faltsuak sortzea edo, zuzenean, gezurra esatea.

Zer ari da gertatzen Jerusalemen?

Urrian labanaz egindako zenbait eraso gertatu ziren bi krisik eraginda. Aurrena, irailaren hasieran, Dawabcheh sendiaren hilketak eragin zuen. Kolonoen komando batek haien etxeari su eman zion familia barruan zela. Defentsa ministroak adierazi zuen bazekiela zeintzuk izan ziren egileak, baina ez zituztela epaituko, hala eginez gero informazioa lortzeko darabiltzaten bitarteko informatikoen berri eman beharko zuelako. Hau da, bizitzak, palestinarra bada, ez du ezertxo ere balio. Hori izan zen jendea kalera ateratzeko arrazoietako bat. Bigarren krisialdia piztu zuen Al-Aqsa meskitarekiko Israelek hartu dituen politika berriak. Testuinguru horrek eragin ditu erasoak eta, egunen joan etorriare-

kin batera, histeria egoera sortu da. Ez da kontu politikoa, Jerusalemgo herritar israeldarrak beldur dira. Nik egiten dizkiot erosketak amaginarrebari edo berak telefonoz eskatzen ditu, kalera ateratzeko beldurrak jota baita. Izu giroaren errudunetako bat komunikabideak dira.

Okupazioaren ondorioei klase gatazka gehitu behar zaie.

Bi komunitateak batera bizi dira Jerusalem: israeldarrak (kolonoak barne) eta palestinarrak. Gizartea pobrea da, oro har, bi aldeetan. Palestinarren %80 pobrezian bizi da eta juduentzako zerbitzuetan egiten dute lan. Hor garatzen da egungo etnia-arteko borroka.

Zergatik labanaz eraso egin? Ez al da suizidioa?

Bai. Palestinan poliziaren aurrean labana ateratzen baduzu, badakizu ez zarela



onik aterako. Egun bizitzen ari garena biolentziaren pertsonalizazioa da. Harelere, azpimarratu nahi dut uste baino gutxiago izan direla erasoak. Nire kalkuluen arabera, kasuen erdia baino ez dira egiazko erasoak izan. Gainerako guztiak “positibo faltsuak” izan dira –tartean hildakoak egote hutsagatik eraso terroristatzat saltzen dituzten gertaerak–.

Afera da antolakunde politikoek sinisgarritasuna galdu dutela. Guztiz antzua da Palestinako Agintearen (PA) estrategia diplomatikoa –Nazio Batuen Erakundean eta Arabiar Ligan eragiteko bideratua– eta bien bitartean egoerak okerrera egiten jarraitzen du. Jerusalem galdutzat eman dute. Hamasek bere lurralde-kontraesana konpondu nahi du. Eta historikoki oso kolpatua izan den ezkerak ez du gaitasunik lidergora heltzeko. Labankadek ez diote estrategia bati jarraitzen, erantzun herrikoia

isla izan dira, eta horrek agerian utzi du, hain zuzen, estrategia politikoaren falta.

Noiz arte luzatu dezakete bide diplomatikoa?

APri buruz ari garenean, burokraziaz eta Palestinako herri mugimenduaren aurkako errepresioaren kolaborazioaz ari gara. Asko du galtzeko. Jerusalem labanak ditugu mintzagai, eta Zis-jordanian, berriz, APk zapaldu dituen manifestazio erraldoiei buruz hitz egin beharko genuke. Palestinako gizartean interes ekonomiko handiak dituzten zenbait taldek lotura estua dute APekin eta horregatik Abu Mazen saiatzen ari da egungo egoera ahalik eta gehien luzatzen. Bide hori ez da egiazko alternatiba. Are gutxiago kontuan izanik Israelek oso argi adierazi duela Palestinarekin negoziatzeko inolako asmorik ez duela.

“Palestinako gatazkaren arazoa ez da aritmetikoa, estatu bat edo biren inguruko eztabaida guztiz hutsala da erregimen sionista aldatu ezean”

“Jerusalemgo israeldarrak histeria egoeran bizi dira, eta komunikabideak dira izu giro horren errudunetako bat”



Gaza Hamasen esku dagoen sabairik gabeko kartzela izatea politikoki errentagarria al da Israelentzat?

Gaitzik txikiena da Israelentzat. Nazioarteko komunitateak Israeli erabateko zigorgabetasuna eman dio. Inork ez zuen ezertxo ere egin iaz Gazaren aurka egindako eraso militarren aurrean -2.000 lagun hil zituzten-. Hau da, ziklikoak diren erasoek sortzen dien kostu politikoa txikiagoa da beste edozein alternatiba erakitzea baino, nazioarteko komunitateak ez baitio inolako kostu edo baliorik ematen palestinarren bizitzetara. Horretan du garrantzia BDZ mugimenduak (Boikot, Desinbertsioa eta Zigorrak). BDZ da Israeli krimenak ordainarazteko egun dagoen egitura eraginkor bakarra. Eragin handiagoa edo txikiagoa izan dezake, baina boikota eta zigorrak dira geratzen zaigun bakarra.

Ez dirudi Palestinako ezkerrek burua jasotzen duenik.

Fatah eta Hamas artean harrapatuta dago. Barne gatazkak garrantzi handiagoa du okupazioaren aurkako borroka baino. Ezkerrek indar handia duen lekuak badira ere -Hebron edo Al-Aida errefuxiatu eremua kasu-, Hamas/Fatah bipolaritateak eragozten du ezkerrek maila nazionalean lekua egitea.

Adibidez, ezkerrek gaur egun Gazan indarra badu ere, lehen Intifadaren garaian botere hegemonikoa izan zen, baita Zisjordaniako unibertsitateetan ere.

Erresistentzia zen ezkerren lekua, horregatik Israelek ezkerreko mugimenduetara bideratu zituen kolpeak. Lehen eta bigarren Intifaden artean beren koa droen bi herenak galdu zituztela esango nuke. Palestina Askatzeko Herri Fronteko (PAHF) kide egitea zen heriotzarako biderik laburrena. Herri Frontea eta ezkerreko mugimenduak ez ziren bakezaleak, baina ez zuten inoiz gerrillaren bidea hartu. Herri borroka zen, eta testuinguru horretan militanteak hiltzen, atxilotzen, deportatzen... mugimendua indargabetu zuten. Ia miraria da gaur egun mugimenduak bizirik jarraitzea.

Eta Israelgo ezkerre, halakorik ba al da?

Garrantzirik gabeko mailetara txikitu da ezker judua. Sionismo barruko indarren metaketak isolatuta utzi du eta, gatazkari dagokionez, ezkerre eraginik gabeko aldagaia da gaur egun.

Israelgo presidente Benjamin Netanyahu Holokaustoaren egiletza intelektual palestinarek egotzi die. Zergatik?

Esan zuen, berez, Hitlerrek ez zituela juduak akabatu nahi, palestinar batek konbentzitu egin zuela. Holokaustoaren erabilera harago doa. Historialari batek esan zuen behin: "historia guztia historia garaikidea da". Eta egun Europan ikusten ari gara. Giro kontserbadoreetan esaten ari dira Islama izan dela beti etsaia. Kontua ez da gaur egun Islama etsai koiunturala izatea, baizik

"Mobilizazio molde eta elkartasuna adierazteko bide berriak behar ditugu; nazioarteko elkartasun brigada gehiago Palestinara eramatea"

"Mundu arabiarrean ez dago egonkortasunik. Trantsizio egoeran daude eta horiek ez dira berri onak Israelentzat"

eta Islama kristautasunaren eta juduen etsai esentziala dela adieraztea.

Henri Levy talka esentzialaz mintzo da. Hain da esentziala ezen Holokaustoaren ideia Islamaren asmoa dela esaten dute, edo, are okerragoa dena, palestinarren ideia dela. Beraz, Jerusalemgo labankaden kasuak Holokaustoaren jarraipena besterik ez dira, zibilizazio judukristauaren aurkako gorroto esentzialaren ondorioa. Hau da, errealtatea hankaz gora aurkeztu nahi dute. Juduak jopuntuan jartzeari utzi dion eskuin mutur atzerakoiari zilegitasuna ematen ari dira. Horregatik, adibidez, Marine Le Penek bere aita bota zuen Frantziako Fronte Nazionaletik, azken honek ez baitzuen ulertu egun arazoa ez direla juduak, arabiarrek baizik. Berdina gertatzen ari da lehen Hyderren esku zegoen Austriako Freedom Party alderdian. Historia nahieran moldatzen ari dira gaur politikoki errentagarri gerta dakien. Eta hau ez da soilik Israeli eta Netanyahu dagokien kontua. Netanyahu da horrelakorik esan dezakeen bakarra, beste batek hori esan izan balu legez kanpokotzat hartuko litzateke-eta. Alemaniako buruzagi politikoren batek esango balu Hitler ez zela erruduna izan, segituan hartuko lukete preso. Hori Holokaustoa ukatzea baita.

Zer gertatu behar da herrialde arabiarrek erreakziona dezaten?

Herrialde arabiarrek erantzuten ari

Nolakoa izan da Espainiako Auzitegi Nazionalera egindako bisita?

“Surrealista xamarra. Madrilgo aldirietako industriagune batean dago. Ez daki- zu oso ondo ea Auzitegi Nazionala den ala Mercedes Benzeko kontzesionarioa. Oso espazio bitxia da. Ni hara joan nintzen BDZri buruzko argibideak ematera. Fiskaltzak zioen ETArean asmakuntza izan zela BDZ kanpaina. Nire testigantza bitartez azaldu nuen Palestinako komunitate zibilak noiz, nola eta zergatik egin zion dei nazioarteko komunitateari Israeli boikot, desinbertsioak eta zigorrak egiteko.”



Israeli boikot egiteko deia Lekeitioko portuan. Euskal Herrian hamaika herri mugimenduk, sindikatuk eta alderdik egin dute bat BDZ kanpainarekin.

dira. Mundu arabiarrean ez dago egonkortasunik, kolapsatu egin da. Trantsizio egoeran dago eta inork ez daki norantz. Ez dakigu zer gertatuko den Sirian, zein bide hartuko duen Egiptok... Oso trantsizio odoltsua izaten ari da. Eta horiek ez dira berri onak Israelentzat.

Europako ezker instituzionalaren gehien- goak, baita Euskal Herrikoak ere, bi esta- tuen irtenbidea bere egin du.

Palestinako gatazkaren arazoa ez da aritmetikoa, erregimen arazoa da. Erre- gimen sionista aldatu ezean, estatu bat do biren inguruko eztabaida guztiz hu- tsala da. Begiratu Hegoafrikan gertatu- takoa, erregimena aldatzearekin batera etorri zen demokrazia. Horregatik gu erresistentzia partekatuaz [corresisten- cia erabili du gaztelaniaz] mintzo gara.

Okupazioa eta apartheidaren aurkako borroka palestinarrak gain, erregimen aldaketa lortzeko borroka israeldarre- na ere izan behar du. Borroka horrek bildu behar ditu Israelgo indar demo- kratikoak, txikitxoak izanik ere, baita gutxiengo etnikoak ere. Tel-Avivén etio- piarra izatea ez da kontu erraza; hala- xe erakutsi dute poliziarekin borrokan amaitu duten etiopiarren manifesta- zioek. Jatorri arabiarreko judua izatea ere ez da xamurra. Erresistentzia bate- ratua behar dugu.

Hamar urteko ibilbidea du BDZ ekime- nak. Nola ikusten duzu egun?

BDZrik gabeko bideren bat proposa- tzen duen edonori ondorengoa galde- tuko nioke: “hik Israeli nola eskatu nahi dion/k erantzukizuna eragin dituen

hildako, zauritu, preso eta galdutako bizitza –hiltzea ez baita beharrekoa bi- zitzaltzeko– saldoarengatik?”. Horren aurrean zera dio nazioarteko komuni- tateak: “tira, negoziatu beharra dago”. Zer negoziatu, ordea?! NBERen Justizia Auzitegiaren ebazpena oso argia da. Be- raz, non da nazioarteko legedia? Ho- rrexegatik orain dela 10 urte gizarte zibila agertu zen plazara kontu eske. BDZ oinarritzko tresna da etorkizuneko edozein motatako konponbideri begira. BDZ ezinbestekoa da, baina ez da nahi- koa. Mobilizazio molde eta elkartasuna adierazteko bide berriak behar ditugu; nazioarteko elkartasun brigada gehiago Palestinara eramatea, kontzientzia han- ditzeko bideak sortzea, eta abar. Baina hori guztia ezin da egin BDZrik gabe, Israeli boikot egin gabe. ■

ANTOLATZAILAK

50. DA!

BABESLE NAGUSIAK

BABESLE PUBLIKOAK

BABESLE PRIVATUAK

LEZAUN, ABARTZUZA ETA ZUDAIRI D EREDUAREN EPIKA

Nafarroako hiru eskolak D ereduan hasi dute ikasturte berria lehen aldiz. Abartzuzako, Lezaungo eta Zudairiko Haur Hezkuntzako klaseetan euskarak bere tokia hartu du azkenean, eskolen eta gurasoen urteetako borrokari esker, eta Gobernu aldaketak lagunduta.



Garazi Zabaleta
@tirikitran

“Ikasturte hasierak beti izaten dira zirrargarriak, baina gaurkoa bereziki hunkigarria izan da. Hainbeste aldarrikatu eta amestu duguna, egia bihurtu da: Abartzuzan badugu D eredua!”. Honela hasten da Abartzuzako eskolako blogeko irailaren 10eko sarrera. Izan ere, hiru eskoletako langile eta gurasoek poz handiz hartu dute berria, “erabat hunkituta eta sinetsi ezinik”.

Nafarroako euskararen zonifikazioak eremu mistoan kokatu zituen Lezaun eta Abartzuza, eta Zudairik osatzen duen Ameskoabarrena Udalerria, berriz, eremu ez-euskaldunean. Legez, eta Nafarroako Parlamentuak otsailean Euskararen Legean egindako aldaketari esker, hiru eskolek bazuten D eredua martxan jartzeko eskubidea gurasoek hala eskatzen bazuten. UPNren Gobernuak etengabe jarritako oztopoen ondorioz, orde, eskolei ezinezko izan zaie gehiengoaren borondatea aurrera ateratzea: “Urte luzez egon da D ereduaren eskaera, baina buruarekin paretaren kontra ematea bezala zen”, dio Laura Iriyoyen Zudairiko eskolako amak.

Hiru eskoletako gurasoek salatu dute ezinezko zitzaiela haurrak eredu euskaldunean matrikulatzea. Tranpa honakoa zen: matrikulazioak egiterakoan, programa informatikoak ez zuen D eredua hautatzeko aukerarik ematen. Gurasoek D ereduan matrikulatzeko hautua egiten bazuten ere, ezin zuten aldaketa hori formalizatu, eta praktikan zeuden eskaera guztiak ez ziren inon jasota gelditzen.

Eskola txikia edo euskara, biak ez

Aukeratu beharra. Hori da bai Lezaunen bai Abartzuzan azpimarratu dutena. Gurasoek erabakia hartu beharra zuten: herriko eskola txikira bidali haurrak euskarazko hezkuntza sakrifikatu, edo Lizarrako eskolan matrikulatu D ereduan, baina eskola txikietako hezkuntza eredua alde batera utzita.

Kalen Artze Abartzuzako eskolako zuzendariak argi azaltzen du, gurasoek apustu egin beharra zutela, hezkuntza ereduaren alde edo hizkuntza ereduaren alde. “Biak ez ziren pakete berean sartzen”.

Erabaki gogorra zen gurasoentzat. Haietako asko herri handiagoetatik herrixko horietara mugitu ziren bestelako bizitza baten bila, eta seme-alabak herri handiko eskolan matrikulatzeak ez zuen zentzurik haientzat: “Horretarako Iruñean gelditu izanen ginen, D eredua etxe atarian geneukan”, azaldu du Vicky Briongos Abartzuzako eskolako gurasoak.

Landa eremuko eskola txikia hezkuntza idealera gehien hurbiltzen den eredu dela uste du Artzek: “Gurasoen inplikazioa oso handia da, herriari eman eta berarengandik jaso egiten du eskolak. Gainera, haurren interes eta beharrirenak kanalizatzea errazagoa da, eta hainbat adinetako haurren arteko interakzioa benetan aberasgarria da”.

Lezaungo eskolan, Abartzuzako kasuaren antzera, urteetan guraso asko herriko eskola txikia bizirik manten-

tzeko hautua egin eta haurrak bertan matrikulatzen zituzten. Azken urteetan, berriz, jaiotza tasa baxuak eraginda eta gurasoek haurrak D ereduan matrikulatzea lehenesten zutelako, eskola txikia arrisku larrian zegoen. Elena Urabaien zuzendariak garbi du egoera zein zen: “Edo D eredua sartzen genuen, edo eskola itxi egingo zen”.

Elkarlanaren eta batasunaren emaitza

Gurasoek egindako lana goraipatzen du Kalen Artze Abartzuzako eskolako zuzendariak. Eta aldi berean, gurasoek hitz onak besterik ez dituzte eskolarentzat, “izandako jarreragatik eta etengabe emandako babesagatik”. Elkarlanaren eta alde guztiak batzearen arrakasta baita eskola horietan D eredua lortzearen emaitza: gurasoak, eskolak eta Udalak, elkarrekin.

Zudairiko eskolako gurasoek, Lezaungoen eta Abartzuzakoen urratsak jarraituz, Ameskoabarrenako kontzeju eta udal guztien instantziak aurkeztu zituzten Hezkuntza Departamenduan, D eredua eskatuz. Ainara Gallego eskolako amak azaldu duenez, otsailean Euskararen Legea aldatu izanak gurasoen artean itxaropena eta gogoia berpiztu zituen, eta berriz biltzen hasteko indarra eman zien. Gobernu aldaketarekin, benetako aukera zabaldu zela ikusi zuten.

Bestalde, eskoletan Lehen Hezkuntzan A ereduan matrikulatutako hau-



GARAZI ZABALETA



ABARTZUZAKO ESKOLA

rrren gurasoak ere inplikaturik egon dira borroka horretan. Horietako asko penaz gelditu dira D eredua lehenago lortu ez eta haien seme-alabek aukera galdu dutelako. "Orain arte gertatzen ari zena 'antinatura' zen, denok nahi genuen D eredua", dio Lizarragak, Lezaungo eskolako amak. ■

Goiko argazkian Abartzuzako eskolako haurrak eta irakaslea. Behekoa berriz, 2015eko martxokoa da. Eskolako guraso-irakasleek D eredua eskatzeko baliatu zuten Parlamentuko Hezkuntza komisioaren bisita.

LEZAUNEN D EREDU ALEGALA ATZO ARTE

Abartzuzan, Lezaunen nahiz Zudairin, inguruko herri askotan bezala, urteetako nahia eta eskakizuna da D eredua. Hiru eskoletan eman den borroka antzekotasunak ditu, baina herri bakoitzean esperientzia ezberdinak bizi dituzte aldaketa bidean.

Lezaunen, eskolako guraso den Iranzu Lizarraga haurra zenean egin zen D eredura pasatzeko lehen saiakera, duela hogeita urte inguru: "Familia guztiek eskatu zuten aldatzea batek izan ezik, eta Nafarroako Gobernua familia bakar hartan oinarritu zen ezezkoa emateko".

Bi hamarkada geroago, eman da azkenean aldaketa. Asko borrokatutako prozesua izan da, gurasoak eta eskola arriskatzera eramanez. Ixteko mehatxua hain hurbil ikusita, eta saia-kera askoren ondoren Nafarroako Gobernua D eredua emanez ez ziela garbi edukita, eskolak beste bide bat bilatu zuen: irakasle guztiak euskaldunak lortu ahal izateko, abian jarri zuten ingelesaren eta euskararen errefortzu programa bat (TIL programaren antzekoa). Irakasle guztiak euskaldunak izanda, D eredu "alegala" jarri zuten martxan. Ofizialki A ereduaren zegoen eskola, baina praktikan erabateko D ereduari ari ziren. Bi urtez aritu dira erdi ezkutuko ereduaren, euskaraz funtzionatzeko.

"Haurrek D ereduaren zenbait urte egin ondoren atzera bueltarik ez egotea espero genuen, eta onartzen amaituko zutela", azaldu du Lizarragak. Urabaienez zuzendariak segituan gaineratu du benetako itzaropena Nafarroako Gobernu aldekako zutela, egoera legeztatu ahal izateko: "Ez genekien noraino iritsi gitezkeen". Bestalde, Udalaren eta ikuskararen babesa izateak asko lagundu zien aurrera egiten.

BABESLEA: **EMUN**



emun
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA



HIZKUNTZA
ZERBITZUAK



KULTURA
ZERBITZUAK



ANIZTASUN ETA IMMIGRAZIO
ZERBITZUAK



PARTE HARTZE
ZERBITZUAK

ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | DERIO

www.emun.eus

Lakari bat babarruna



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria



Lakari denda ekologikoaren berezitasuna da saldu gabe geratutako produktuentzako aterabidea badutela: sukaldea jarri dute maskaltzen hastera doazen jakiekin eguneroko otorduak prestatzeko.



LAKARI

- **Kokalekua:** Zarautz.
- **Helburua:** Kontsumo-eredu jasangarria, tokiko laborantza iraunkorraren biziberritzea eta elikadura osasungarria sustatuko dituen, eta ekonomia sozial eraldatzailean oinarrituko den merkataritza-heziketa gune bat sortzea da.
- **Dendako espazioak:** Salmenta gunea, sukaldea, dietetika gunea eta hitzaldiak, eztabaidak, bilerak, emaldiak egiteko sala.
- **Ekonomia ereduak:** Ekonomia Soziala eta Eraldatzailea. OlatuKoop sarearen barruan daude.

Ordenagailu aurrean nagoen honi Zarautzen irekitzera zihoazen dendaren izena aditzean barre txikia egin zitzaion. Gure etxean lakari txitxiei eta ipurdi ederrei deitzen baitzaie. Eta pentsatu nuen, zein kurioa izena elikadura osasungarriko denda baterako. Ezjakina ni. Aiton-amonek hau irakurriko balute... Lakaria garai bateko neurketa mota bati deitzen omen zaio, eta ni enteratu gabe; 3,6 kg inguruko neurriari hain justu. Neurketa egiteko egurrezko kaxaren irudia ikustean, ordea, ezagutu dut tresna, eta orduan ulertu dut Lakariren logoa.

Total, facebook-ean jarritako eguneko menuak ikusita joan naiz Zarautzera, zer dagoen ikustera.

Ale soltea

Orain hilabete ireki dute denda, eta ni bezala lehen aldiz gerturatutakoak asko ziren. Lau langileak zera azaldu, beste erakutsi eta hura saldu ari ziren bitartean eman dut lehen itzulua dendan barrena; eta estreinako begiratura ale soltearen papera gustatu zait. Ohiko denda ekologikoetan zer edo zer ikusten hasiak bagara ere, normalean kontatutako produktu batzuk besterik ez ditugu soltean erosteko moduan; eta Lakarin esfortzu bat nabari da zentzu horretan. Kontsumo jasangarriagoaren bidea hortik ikusten dute Lakariko langileek: bakoitzak nahi eta behar duena

hartu, markatzen dizuten kantitaterik erosi behar izan gabe, eta noski, askotan janaririk ekologikoena izanik ere plastikozko poltsetan munduari bira emanez iristen zaizkigun produktuen jatorria behintzat kontutan hartuz –nahiz eta horrelako batzuk ere aurkituko dituzun denda–.

“Eta zer da bere landareak zaintzen dituen inguruko baserritarrak bildutako produktua baino ekologikoagorik?” diote. Basobeltz baserria, Zarautz; irakurri dezakegu hainbat produkturen informazio-txartelean. Beste hainbaten artean produktuak saltzeko zuzeneko tratua egin duten baserrietako bat da. Ez dute izaten, beraz, neguan tomaterik edo udan kiwirik. Garaian garaikoa da filosofia.

Bertan prestatutako janaria

Elikagaiak frigorifikoan hilabete aldaketa txikirik jasan gabe pasa dezaketela sinestarazi digutenean, Lakarin frigorifikoetan gutxi xamar inbertituko zutelako-edo, baina lehenago hasten dira maskaltzen. Hortik sukaldea jartzearen ideia. Ia saltzeko ez baina jateko moduan dauden elikagaiak bildu eta egunerokoan otorduak prestatzen dituzte. Hori da nik facebook-en ikusitako menua, Lakarin prestatutako elikagaiena. Saldu gabeko produktuei irteera emateko aukera moduan planteatu zuten, eta badirudi harrera ona izan duela. ■

Petti

Joseba B. Lenoir



27
Azaroa
22:00ean

PAGOA Aretoa
OIARTZUN

Sarrera: 10 € aurretik 15€ egunean

www.entradaskutxabank.es
oiartzun Elorsoro

 **argia**

an(t)za
komunikazio grafikoa

PAGOA
Euskal Herri berriko
artisau garagardoa 

JANZTEAREN MUGARRIAK



Jakoba Errekondo

Hedabideek zientziarekiko duten jarreraz eta zientzialariek bere lanaren hedatzeari buruz duten jarreraz aritzeko deitu didate Donostiara, Natur Zientzien 2. Topaketara. Sumatzen dudanez, nik hedatzen ditudan ideia batzuk "oso zientifikoak" ez ote diren egotzita.

Han eta hemen, urteak daramatzat gure kultura harrotu eta zabaltzen. Bai, nekazaritza baita gure kulturaren alor garrantzitsuena. Gure lurrarekin dugun lotura horri zor diogu garena. Amona Joxepa zenaren gonapean, ume purtzil muturzikin bat nintzela, baratzean letxuga "frantsesak" aldatzen laguntzen nionez geroztik, ikasi besterik ez dut egin. Etengabe. Beti gustatu izan zait han-hor eta hemen jendeak gauzak nola egiten dituen ikusi-entzun eta jasotzea.

Gero, irrati batean eta bestean, idatzizko hedabideren batean eta bestean,



eta esku artean duzun ARGIA astekarian hasi nintzen landareei buruzko gora-beherak azaltzen. Eta agerian jartzean hasten dira komeriak. Gauzak nola esan, nola azaldu, zer azaleratu eta zer ezkutatut, zer itxura eman, naizena zenbateraino azaldu... Baina esanez; jendea jantziz. Eta kritika. Kritika beti gozoa irudit

izan zait. Badira, ordea, mugarriak jarri nahi dituztenak: hau esan eta hau ez!

"Zientzian" lan egiten duten askok dituzte mugarriak gustuko, baina zientzian ere artea etorkizunerako bideak proposatzea eta aurreikustea da. Mugarrietatik haratago. Artea. Izan ere, zer da zientzia? ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo! Badira bi hilabete zientu bat porru sartu genuela gure baratze kaxkarrean; hainbat aholku irakurri eta hainbat laguntza jaso arren, porruak landatu genituen bezain ziztrin dau-de. Belar txar batzuk dituzte inguruan (gaztelaniaz *aros* izenekoak), eta ezin-nean. Argazkietan garbi ikus dezakezu... Zer egin dezakegu? Saiatu gara belar horiek kentzen baina ezin dira sustraitik atera! Eta gainera zure liburuan uzteko diozunez... Laguntzerik bai?

Olga Villa (Larraul)



Kaixo Olga. Arrazoi osoa duzu, argazkiko porruak itxura ziztrina dute.

Nik egoera horren jatorria izan daitekeen arrazoi aukera esango dizut, eta irtenbidea zerorren esku dago. Zuk aipatzen dituzun landare "belar" hori ilarrondokoa da (*Arum maculatum*) baina sapelarra ere ageri da (*Stellaria media*) eta azenario batzuk ere tartean badirela esango nuke (*Daucus carota*).

Eta bai, porruari belar artea gustatzen zaio, hezetan zalea baita. Garrantzitsuena lur fresko eta sakona izatea da, eta erruz simaurtua; simaur edo luar zaharrarekin. Argazkian ikusten dudanez lurra hala-moduzkoa da. Ilarrondokoa agertzeak ere lurra sakonean ez dela prestatu adierazten du. Eta amaitzeko, hilabete pare bat izateko, gora-beherak gorabehera, ez daude hain txarto... Hurrengoan, ahal baduzu, ekainaren amaiera edo uztailaren hasieran aldatu.

BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea • [@bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)



MITOA ALA EGIA?



TXAKUR JENDEA DUEN JENDE ZAKURRA

Ikaragarritzko izurritea dugu gure etxe inguruetako berdeguneetan: txakurra bertara eramaten duen jende zakurra. Politena eta "naturalena" txakurrak kaka eta pixa belardian egitea dela iruditzen zaie. Ez dute kontuan izaten belardi hori moztu behar duen langilea, edo bertan jolastu edo lasai ederrean etzan eta egon nahi duena. Beraiena eginda, akabo!

Egokiena kakak behintzat bildu eta luarra egiten ari den tokian uztea da. Bestelakoa da erabilera publiko nabar-

mena ez duen sail batean egiten badu. Hor arazorik ez.

Pixarena beste upeleko sagardoa da. Ukitzen duen landarea erretzeko gai da. Txakur bakoitzak ustez bere duen lurraldea mugatzeko zarrazta uzten du, ondoren lur hori borrokatu nahi diotak ere berea utziko du, bukatzen ez den katean. Txakur asko biltzen den tokian pixa erreka pixa erreka gainean. Erredura erredura zaharraren gainean.

Jakoba Errekondo

AURKEZPEN HITZALDIK

Hauek dira ondorengo hitzorduak:

Azaroak 19

Aretxabaleta

Udaletxe zaharrean, 18:30ean.

Loramendik antolatuta

Azaroak 20

Etxebarría (Lea-Artibai)

Herriko eskolan, 19:00etan.

Azaroak 24

Iruñea

Zaldiko Maldiko, 20:00etan.

Azaroak 27

Arantza

Lekua eta ordua zehazteke.

Azaroak 29

Bera

Ertz, bertze musiken jaialdiaren barruan. Lekua eta ordua zehazteke.

Abenduak 16

Altzo

Udal aretoan, 19:30ean.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratuko duzu

sustapena@argia.com

☎ 943 371 545

HARAKIRIA HASIBERRIENTZAT



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Japonia, 1170. Minamoto no Tametomo samuraiak, etsaiz inguratuta eta irtenbiderik ezean, bere buruaz beste egin zuen sabelean ebakia eginda. Kroniketan *harakiri*-a edo *seppuku*-a aipatzen zen lehen aldia izan zen. Bere burua erritu horren bidez hiltzen azkena, oraingo, Isao Inokuma izan da, 2001. urtean.

Harakiri eta seppuku sinonimoak dira: "sabeleko ebakia" esan nahi dute. *Kanji* edo zeinu berdinek osatzen dituzte bi hitzak, baina alderantzizko ordenan jarrita eta desberdin ahoskatuta. Japoniarrek seppuku nahiago dute, jasoagoa delako, baina atzerrian harakiri baldarra nagusitu da.

Suizidio mota dotorea nola izendatu argi egon ez arren, praktikan nola burutu behar den zehazki jasota dago, hamar arautan:

1. Janzkera. Beste mundura joateko kimono zeremoniala jantzi behar da. Kolorea suizidak aukeratu dezake, baina zuria hobesten da.

2. Tokia. Leku gomendagarienak tenpluak, norberaren etxea edo, besterik ezean, buru-hiltzailea giltzaperatu duten tokia dira. Suizida oholtza baxu soil batean jarriko da, parean zulo bat edo saski bat duela, burua moztzen diotenean, pirritan joan ez dadin. Hobe da argi mehea erabiltzea, ikuskizun odoltsua arintzeko, eta intsentsua ere ideia ona da, erraien kiratsa estaltzeko.

3. Agur-poema. Erritua isiltasun zorrotzean egin behar denez, suizidak ez dauka azken hitzak ozen esateko aukerarik, baina poema bat idatzita uztea keinu dotoretzat jotzen da.

4. Lekukoak. Ganorazko seppuku orok lekukoak behar ditu, eta etiketaz jantzi-ta agertu behar dute, gainera.

5. Laguntzailea. Buru-hiltzaileak aukeratzen du laguntzaile edo *kaishaku*-a. Protagonistak tripa ateratzen amaitu duenean, laguntzaileak burua moztuko dio ebaki irmo garbi batez.



Gerraria harakiria edo seppukua egitear.
Kunikazu Utawak sinatutako xilografia, Ego garaikoa (1850-1860).

6. Tresna. Katanak lan horietarako luzeegiak direnez, *kodachi* edo *wakizashi* izeneko espata laburra edo *tanto* izeneko daga erabiltzen dira.

7. Jarrera. Suizida japoniar erara eseriko da, espata parean eta laguntzailea atzean duela. Triskarantza hasi baino lehen, erreberentzia egingo die bertarututakoei.

8. Ebakia. Lehen ebakia sabelaren beheko aldean egin ohi da, ezkerretik eskuinera. Bigarrena, behetik gora. Eta handik aurrera, arau bakarra dago: zenbat eta ebaki gehiago, hobeto.

9. Hiltzeko ukaldia. Suizida ahuldu-ta dagoenean, burua aurrera makurtuko du, laguntzaileak angelu hobea izan dezan burua ebaki bakarraz mozteko. Laguntzailerik ez badu, lepoan ebakia egiten saiatuko da geratzen zaizkion indar apurrez.

10. Subjektua erraiak aterata eta burua moztuta dagoenean, gorpua erretiratu eta sarraskia garbituko dute. Baina lehenago, mirabe batek buru moztua erakusten die lekukoei, inork suizida hilda dagoela zalantza egiten badu edo. ■

Kali jainkosa eta The Rolling Stones

Kali betiereko energiaren jainkosa da, iluna eta bortitza, mihia aterata irudikatu ohi dutena.

1971n The Rolling Stones taldeak *Sticky Fingers* diskoa atera zuen. Azala Andy Warholek egin zuen, baina barruan, lehenengoz, John Pasche 24 urteko gazteak diseinatutako ez-painen eta mihiaren logoa jarri zuten.

Mick Jagger taldeko abeslariak Kaliren irudi bat erakutsi zion Pascheri, diseinatzaileak inspirazio iturritzat erabil zezan. Paschek jainkosaren ahoa irudikatzea erabaki zuen, gero, eredu moduan, Jaggerren beraren aho deigarria erabili zuen arren.

John Pascheri 50 dolar ordaindu zizkizioten azken mendeko ikono ezagunenetakoaren truke. ■



Goian, Kali jainkosa hinduaren eskultura. Azpian, The Rolling Stones taldearen logotipo ezaguna.



DANI BLANCO

Diagonalekoekin topaketa

Madriren egin eta Espainiako Estatuan zabaltzen dute euren lana ezkerreko kazetaritza konprometutuan diharduten *Diagonal* proiektuko kideek. ARGIArekin elkartu ginen, eta kontatu ziguten nola lantzen duten euren komunitatearekin harremana, bolondres lan handiari esker eusten diotela proiektuari, lan baldintzetan egoera gorria dutela... Aurrerantzean, Euskal Herriatik kanpo ere balioetan eta lan moldeetan kide sentitzen garen hedabide txikion arteko elkarlana (*Diagonal*, *La Directa*, ARGIA...) sustatzeko pausu zehatzak adostu genituen.

Hogei urtez kolaboratu duten Joxerra Aizpurua eta Jabier Agirreri agurra, esker onez



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Joxerra Aizpurua eta Jabier Agirre kolaboratzaileek "itxita" kartelak zintzilikatu dituzte osasunaren, zientziaren eta teknologien sailetan. Urteetako kolaborazio finkoak 2015a izan du amaiera data. ARGIAk astez aste emandako konfiantzagarritasun eskerrak emateko modua da hau.

1990eko hamarkadan hasi ziren lehen testuak ARGIArekin bidaltzen, beren izenez sinatuta behintzat, aurretik Agirre bera ibilia baitzen ZERUKO ARGIArekin *Basajaun* goitizenarekin. Astelekiarekin biek ala biek duten harremana aspaldi piztutakoa da. Batak bezala besteak etxean, umetan ezagutu dute (ZERUKO) ARGIA. Joxerra Aizpurua 1993an Elhuyarren lanean ari

zela hasi zen zientziaz eta teknologiaz atzekarian lehen testuak sartzen, eta Jabier Agirreren pausuak, berriz, oraindik ere ZERUKO ARGIA zela egin zituen lehenak, kirol-medikuntza euskaraz zabaltzeko asmotan.

Hemendik aurrera, pausoak moteldu baino ez dira egingo, ordea. Norberak bere gaiei jarraiki idazten jarraitzeko asmoa daukate. Aizpurua dio "asteroko entregak sortzen duen presiotik askatuta", baina ARGIAko *Bata zuria erantzita* blogean jarraituko du idazten, libreago. Eta Agirrek ere "beste euskarri batzuetara egokituz" baina osasunaren inguruan idazten segitzeko asmoa dauka. ■

"ARGIArekin eskertzen diot feminismoaren aldeko apustu ausarta egin izana: jorratzen dituzten gaietan eta edukietan nabaritzen da, baina baita ere lan egiteko prozesuetan eta kolaboratzaileen arteko harremanetan"

June Fernández, Pikara
Magazineko zuzendaria eta
ARGIAko kolaboratzailea



Lezatic mezu goxoa

Rosa Gil harpideduna ARGIArekin makrobiotikaz egindako artikulua gogoratu da, lagun bat gaixo dagoela jakin duenean. Baina ezin aurkitu astekari hura (2.289 zenbakia). Etxera bidali diogu, eta esker hitzak eta bonboi goxoak iritsi zaizkigu egoitzara.

Proposatu Argia Sarietarako hautagaiak

Lankideok osatzen dugun epaimahaia hasia da 2016ko Argia Sarietarako hautagaiak aztertzen. Bidali zure kutunen zerrenda harpidetza@argia.eus-era. Gogoratu alor hauetako lanak saritzen ditugula: ikus-entzunezkoak, irratia, internet, prentsa, komunikazio ekintza eta ibilbide oso bat saritzen duen merezimenduzkoa.

AGENDA

Trantsizioak erakusketa

Lau hamarkadetako eraldaketa anitzak, ARGIAko artxiboko argazkien bidez.

- Hernanin: azaroaren 30etik abenduaren 4ra, Biteri Kultur Etxean. Bisita gidatua azaroaren 30ean...

Oskorriren agurra

Zerbait geratuko da

Oskorriren desegiteak hitz penatuak zabaldu ditu han-hemen, ekainean lau hamarkadako bidearen amaiera iragarri zutenetik. Zenbaitek kezka azaldu du euskal kulturgintzarekiko axolagabekeriak taldearen agurra behartu ahal izan duelako, eta euskal talde klasikoaren transmisio-gaitasuna nabarmendu dute beste askok. Horretaz hitz egin dugu Maite Arroitauregi, Imanol Epelde eta Xabi Ubedarekin.



Itziar Ugarte Irizar
@itzugarte

“Oskorriren jarraitzailea izan gabe, Oskorri neuregan daramat”. Imanol Epelde *Etxepare Raperen* hitzak dira, baina apika euskaldun askok –gazte eta ez horren gazte–, bere egin ditzaketenak. Jarraitzaile izan edo ez, 1972an jaio zenetik, belaunaldi batentzat baino gehiagorentzat talde erreferentzialenetakoa izan baita Oskorri, orotara 3.000 kontzertu eta 500 kantu inguruko ondarea landu ostean.

Maite Arroitauregi *Mursegori* haurtzarora datorkio burura Oskorri hizpide hartzean, utzitako arrastoa egun ere nabari duen arren: “Memorian hain presente dauzkadan kantuek –*Hau da debilidadia edo Aita San Migel*–, moduren batean eragina izango dute nigan, eta nire musikan”. Xabi Ubeda Baxiri, Jupiter Jon taldeko gitarra-joleari, Os-

korriren hasierako diskoen azalak etortzen zaizkio aurrena, Anton Latxaren ahotsarekin batera. Hala ere, musikalki ez diotela eragin uste du: “Gurea beste *rollo* bat da: zerikusi gehiago du punka eta bestelako gauzekin”.

Zergatik erabaki du Oskorrik desegitea? Taldekideek ez dute adierazpenik egin nahi izan zioez, hala adostu zutelako azken birarekin hasi aurretik. Litekeena da denboraren perspektibarekin hitz egitea; baina esanguratsua da Natxo de Felipek 2013an *Berrian* egin elkarrizketan esandakoa: “Gu ez gauden bukatzeko asmotan. Egoera dago gu akabatzeko puntuan”.

Politikak eta polemikak

Oskorriren ibilbideak izan du momentu polemikorik. Euskaraz kantatzeagatik

zentsura ezagutu ondoren, “espainolista” izendatuak izatera igaro ziren. Aipatu elkarrizketan argitaratutakoek ere hautsak harrotu zituzten, Euskal Herrian “kritika ideologikoaren eta atentatuaren arteko muga oso lausoa” zela esan zuen taldeko aurpegiak ezagunenak.

Egun politikak musikaria baldintzatzen duen galdetuta, Ubedak azaldu du taldean “egoera nahiko surrealista” bizi izan dituztela. Umoretik kontatu du haien kontzertu batean gazte batzuk pankarta batekin sartu zirela “diruzaleak eta kapitalistak” zirela salatzen. Gaur egun, baina, dena “irekiago” uzten dela uste du Epeldek: “Aldarrikapen soziala asko lausotu da letretan eta sortzailearengan; begirada anbiguo nagusitu da garena deskribatzean eta salatzerakoan”.





Oskorriren ikuskizuna: "Vizcayatik Bizkaira".

KAP PRODUKZIOAK

Politika egiteko modu asko daudela ñabartu du Arroita jauregik, erabaki txikietan gauzatzen direnak: "Diskoak argitaratzeko modua, prezioa, zuzenekoetan transmititutako energia, lanarekiko konpromisoa...". Erabaki txiki horien bidez ematen dio *Mursegok* zentzu politikoa bere jardunari.

Transmisiorik ba ote?

Tradizioa birsortzeko ahalmen berezia aitortu izan zaio Oskorriri. Arroita jauregiren esanetan, "estilistikoki egongo dira folk-rock taldeak, baina ez dakit modernitatea eta tradizioa hain ondo uztartu duen talderik dagoen. Ibon Rodriguezi irakurri diot eta guztiz ados nago: kantu zaharrak berreskuratu eta propio egin zituzten Oskorrikoek, kantu zaharrei hitz garaikideak emanez

eta testu zaharrei doinu berriak". Ohiko jarduna ez duen arren, testu edo kantu zaharrak musikatuz egiten den transmisio lanari oso interesgarri deritzo.

Epeldek ikusten du Oskorrirekiko antzekotasunik bere sorkuntzan: "Oskorri Bernart Etxepareren letrekin egindako disko bat du [*Mosen Bernart Etxepare 1545, 1977*] eta tradizioa gaur egunera ekartzen ahalegin handia egin du. Horretan aritu naiz ni ere, diferentzia batekin: folkean oinarritu beharrean, rapean eta musika elektronikoan oinarrituz". Bere ustez, badira "hitz eta aire zaharrak doinu berriz geroratzen" lekukoa hartu dutenak baina arazoa irismenean ikusten du. "*Gaztean* ez dagoena, nola iritsarazi?".

Belaunaldi gazteetako taldeek adin eta publiko ezberdinak bateratzea zai-

lago izango dutela ikusten du Ubedak, egungo zenbait erreferentziak –Benito Lertxundi eta Mikel Laboa aipatu dituzten bezala. "Baina nork daki?".

"Gezur ikaragarria"

"Euskal kulturaren kontua gezur ikaragarria" dela adierazi zuen *Berrian* Natxo de Felipek, euskal sortzaile askok bizi dituzten baldintza txarren harira. Antzeko ildotik, euskal kultura "ataskatuta" ote dagoen ustea du Arroita jauregik: "Ez du aurrera egiten; garena ahaztu gabe eta daukagun ondarea zainduz aurrera egin behar dugu, eta ez dakit instituzioak horretarako prest dauden".

"Gaur egungo mundua guretik interpretatu behar dugu. Ezinbestekoa da ateak irekitzea garenari eutsiz", dio Epeldek. Horretarako, esperimenta-



» **MAITE ARROITAJAUREGI**
 “Ez dakit modernitatea tradizioarekin hain ondo uztartu duenik dagoen”



» **XABI UBEDA (JUPITER JON)**
 “Gurea beste *rollo* bat izan da, punkarekin zerikusi gehiago du”



» **IMANOL EPELDE**
 “Kultur arduradunetatik inork galdetu al die zergatik utzi duten?”

zio guneak ireki behar direla uste du, ikertzeko. Hedapenik, ikerkuntzarik eta transmisiorik gabe sorkuntza “hankamotz” geratzen delako, bereziki, euskalduna moduko kultura batean.

Sorkuntzatik bizitzeko hautuaz, Epeldek dio denik eta lanik onena eginda ere, ez dela inoiz “irakasle bat bezain eroso” biziko sortzailea. Etorkizunean pentsatuz bizi direnak sortzeko grina mugatua dutela uste du.

Hauxe da despedidia

“Nik dakidala, Oskorrik badoazela esan du baina ez zergatik. Kulturgintzako ar-

dura duen zein joan da eurengana galdetza zer gertatu den, zergatik utziko dioten 40 urteko ibilbideari?”, galdetu du Epeldek. Sorkuntza norbanakoen borondatearen gain uzten dela kritikatu du, “elikatu eta mimatu” egin beharko litzatekeen arren, kulturak herria elikatzen jarraituko badu.

Mursegok ere itauna bota du: “Zergatik ez gara gai izan Oskorri mantentzeko?”. Garaiak aldatu arren, zuzeneko musika entzuteko lekuak ugaritu direla eta, Donostian, esaterako, astebururo dozena bat kontzertutarako aukera dagoela azaldu du. Baina kon-

tzertuetara musika entzutera baino, hurrengo egunean han egon zirela esateko joaten dela salatu du. “Oskorri programatzea garestia omen da, eta? Agian militanteagoak izan behar ginatke. Kultura ez da denbora-pasa, esfortzua suposatzen du, pertsona egiten gaitu, lekuan lekuko. Kulturak definitzen bagaitu, hobeto zaindu beharko genuke”.

Oskorrirentzat behintzat berandu dela dirudi. *Hauxe da despedidia* izenarekin egin duten agurreko bira azaroaren 22an amaituko dute, Bilboko Arriagan. ■



EGUNEROKO INDARKERIA SEXISTEN KONTRA

IDENTIFIKATZEN, SALATZEN, ERALDATZEN

World kafea

AZAROAREN 12an

Gizarte eragile ezberdinek emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko lan esperientzien elkar trukaketarako eta etorkizunerako honekin akabatzeko konpromezuak hartzeko helburuarekin, elkarriketa kolaboratzaile batean parte hartuko dute.

Kaleko ekintza

AZAROAREN 21n

🕒 11:30-14:00

Arte Ederretako ikasle talde batek modu artistikoan adieraziko du World Kafea ondorioek eta ideiak inspiratutakoa. Giza Zientzia eta Komunikazioko beste ikasle talde batek, gai berdinen inguruan aurretik egindako lanen erakusketa bertaratuko dute.

Plaza de las Mujeres 25N • C/Bailén, 1 - Bilbao

ANIMA ZAITEZTE!








ERREPASO BAT OSKORRIREN IBILBIDEARI



Julen Leuza
@JulenLeuza

1970-1980

Musikalki berrikuntza asko gehitu bazituzten ere, garai honek letren eduki errebindikatiboa izan zuen ezaugarri nagusi. Gabriel Arestirekin batera egindako lana taldearen abiapunturik garrantzitsuena izan zen, baina letra egileak ere izan ziren urte hauetan: Mikel Zarate, Alfontso Irigoien, Xabier Amuriza eta noski, Bernart Etxepare. Bi single (*Aita semeak* eta *Egia da*) eta hiru disko argitaratu zituzten hamarkada honetan: *Gabriel Arestiren oroimenez*, *Mosen Bernat Etxepare* eta *Oskorri*. Dударik gabe, aldarrikapen handieneko kantu eta urteak.

1980-1990

Taldearen esperimentazio garai nabariena izan ziren. Musikalki, melodia herrikoi asko moldatu zituzten, tresna tradizional gehiago erabiltzen hasi ziren eta aldi berean gitarra elektrikoari eta saxoa bezalako instrumentuei pisu handia eman zieten. Aton Latxak eta Fran Lasuenek abesti ugari egin zituzten ahots nagusian, taldeari puntu heterogeneo eta freskoa emanez. *Plazarik Plaza* diskoko kantu guztien letrak Natxo de Felipek egin bazituen ere, gainontzeko diskoetan idazleen eta hainbat bertsolariren lana erabili zuten. Aipagarriak dira Xabier Amuriza (*Euskal Herrian Euskaraz*, *Nafarroa*, *Kyrie Eleison...*) eta Jon Sarasua (*Atzo Goizean*, *Amorua*, *Zalaparta...*). Zortzi disko osotara. Urrezko hamarkada, disko borobilarekin amaitua: *Datorrena datorrela*.

1990-2000

Agerian geratu zen taldearen gaitasun polifazetikoak. 1991n *Hi ere dantzari* grabatu zuten Euskal Dantzarien Biltzarrarentzako, 1993an Kukubiltxorekin batera lehen haur ikuskizuna, diskoa barne: *Katuen Testamentua*, 1998an *Marijane kanta* zanekin errepikatuko zutelarik; eta 1997an hasiko ziren The Pub Ibiltaria formatu eta bildumekin, urtero bat argitaratuz. Tartean, estudioko bi disko (*Badok hamairu* eta *Landalan*) eta zuzeneko galanta 25. urteurrena aitzakia. Formazioan aldaketa ugari, nukleoak (De Felipe-Latxa-Martinez) tente eutsi ziola. Oskorri bizirik, ideia berriei eta lan egiteko prest, garaiko produkzio guztia lekuko.

2000-2015

Aurreko hamarkadak utzitako bestondoa-ren ondotik altxatzea zaila bazirudien ere, milenioa disko trinko eta interesgarri batekin estreinatu zuten: *Ura*. 2001ean Xabier Amurizaren laguntzarekin *Vizcayatik...* *Bizkaia* argitaratu zuten, eta 2003an *Desertore*, kantu originalekin egindako azken lana. 2005ean Kukubiltxorekin elkartu ziren berriro *Doktor Do-Re-Mi* eta *Benedizebra* ikuskizuna egiteko. 2007an, 35. urteurrena ospatzeko hiru garren zuzeneko *Banda Band*, eta honekin batera banda formatua, hainbat tokitan herriko bandarekin emanaldiak egiteko. 2011n burutu zuten azken lana, *Dantza kontra dantza*, Joan Ignazio Iztuetak jasotako soinu zaharretan oinarritutako dantza jauzi berrien sorkuntza. Taldeak agur esatea erabaki du 40 urteko lana eta gero, euskal musika garaikidearen erreferentzia nagusietako bat bihurturik. ■

Singleak:

- 1975: *Aita semeak-Anaitasuna*
- 1976: *Egia da-Gosetea*

Estudioko diskoak:

- 1976: *Gabriel Arestiren Oroimenez*
- 1977: *Mosen Bernat Etxepare*
- 1979: *Oskorri*
- 1980: *Plazarik Plaza*
- 1981: *Eta Oskorri sortu zen*
- 1982: *Adio Kattalina*
- 1984: *Hau Hermosuria*
- 1986: *In Fraganti*
- 1989: *Datorrena Datorrela*
- 1991: *Hi Ere Dantzari*
- 1992: *Badok Hamairu*
- 1995: *Landalan*
- 2000: *Ura*
- 2003: *Desertore*
- 2011: *Dantza Kontra Dantza*

Zuzenekoak:

- 1987: *Hamabost urte... eta gero haur!*
- 1997: *25 Kantu Urte*
- 2007: *Banda Band*

Bildumak:

- 1984: *Alemanian Euskaraz*

Oskorri & Kukubiltxo (haur ikuskizunak):

- 1993: *Katuen Testamentua*
- 1998: *Marijane Kanta Zan*
- 2005: *Doktor Do-Re-Mi eta Benedizebra*

Oskorri & Urretxuko herria:

- 1999: *Iparragirre Bueltan Etxera*

The Pub Ibiltaria: hamahiru disko (1997/2009)



Geroz eta gehiago gara **indarkeria sexistari aurre egiten** diogun emakumeak.

Eraso sexistarik ez!



KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Zintzo jokatzeari



Aritz Galarraga



Aberriaren alde (eta kontra)

RAMON SAIZARBITORIA

Alberdania, 1999

Euskal literaturan nobelagile gisa da eza-guna Ramon Saizarbitoria. Hori gogoratzen digu hegalean eskuartearen dugun liburuak, orotariko saiakera laburrak biltzen dituen bilduma batean argitaratu zenak. Liburu arraroa da, beraz, idazlearen bibliografian bederen: 1970eko *Mendebaleko ekonomia-
ren historia* hartatik ez baitu saiarik egin; gerora ere ez, guk dakigula, ez behintzat berak bakarrik sinatutakorik. Eta ekonomia kontuak urrun, idazlea kezkatzen duten gure errealitate soziokulturalaren alderdi zenbait larrutzen dira *Aberriaren alde (eta kontra)* honetan. Zenbait, ugari, baina harritu naute euskararen inguruan ari direlako horietako ez gutxi. Felipe Juaristik bazekien, eta ez zuen liburu irakurtzeko batere asmorik: “gogait gaizto egina bainago euskarari buruzko eta euskararen inguruko gaiet buruzko eztabaidez. Egiago esatera, euskararen gaintetik nabil aspaldi honetan, aingeruak bezala hegan”. Eskerrak tarteka oinak lurrean izaten ditugun.

Bai, ze, euskararen ingurukoak izango dira hemen larrutzen diren alderdietako ez gutxi –“geure egoera zehatzari ahalik eta estuen egokitutako konponbideak aurkitzeko gai izan beharko ginateke”–, literatura-ri buruzkoak beste batzuk –“ez dut uste hobia denik irakurtzea, edozer gauza irakurtzea, eta azken finean, gauza txar bat irakurtzea, telezabarra ikustea baino”– eta, tituluari men eginez, abertzaletasunaren gainekoak ere badaude –“gure nazionalismoak okerrera egin du, kultura menderatu baten defentsatik, ezaugarri etnizistak

erakusteraino”–. Mutur bateko zein beste-koei haserre pitz diezaioketen kontuak; ez, bereziki, idazlea erdian jarri zale delako, ez ekidistantziagatik, ez bada fatalitate hutsagatik, “kontrakoi neurri bereko alderdi positiboak ikusi gabe egitea” eragozten dion halabeharagatik. Ezin kontu guztiekin bat etorri, hartara. Markos Zapiainek esan zuen, 2000ko kritika batean: “Ezinezkoa da Saizarbitoriarekin erabat ados egotea, baina ezinezkoa da halaber punturen batean bederen bat ez etortzea”. Kontu guztiak dira, ordea, eztabaida pizgarri. Eta, azkenetako, esango nuke hausnarketek eurek bezainbat erakarri nautela hausnarketak plazaratzeko moduak, gogoak, jarrerak. Nire ustean esaldi honetan laburbiltzen direnak: “Geure buruarekin zintzo jokatzeari; hori da, beraz, kontsigna”.

Idazlearen bibliografian arraroa den liburu hau argitaratu zen bildumaz, *Zerberri* sailaz, zer esan: faltan dudala, hitz-jario neurrigabea nagusi den garaiotan, berritsukeria gailendu den sasoiaren, ehun orrialderen bueltan gogoeta egiten duten liburu patxadatsu, jakingarri, eskurakoak. Saizarbitoriaren pieza bakan honen gisakoak. ■



» TELEGRAMA

Azaroaren 13an hasi zen Bilboko **Zinebi** nazioarteko zinema jaialdia. Hilaren 20an amaituko da *STOP* Leioan eskainiko dute **Huts teatroaren** antzeztan berria, *Etxekoak*, azaroaren 20an *STOP L'Hereu Escampa* emo-punk talde kataluniarra Donostiako Dabadaba aretotik pasako da azaroaren 22an *STOP Getxoko Komiki Azokaren XIV. edizioa* hemen da: azaroaren 20tik 22ra bitartean, komikiak erosteko aukeraz gain hainbat ekitaldi eta tailer *STOP*

» DISKOA

Ñabardurak



Montse Auzmendi

Tolosako 47. Abesbatza Lehiaketa

Lekua: Tolosako Leidor Antzokia.

Data: urriaren 29, 30 eta 31, eta azaroaren 1a.

Loïc Pierrek zuzendutako
Mikrokosmos abesbatza frantziarra.

Abesbatza-musika delikatu eta konplikatu da. Taldeen arteko desberdintasunak batzuetan ez dira begi bistakoak. Ñabardurak dira diferentzia markatzen duten elementuak, eta hain detaile zorrotzetan zaila da adituak ados jartzea.

Tolosan disfrutatu genuen 47. Abesbatza Lehiaketatik atera dezakegu aipatutako ondorioa. Ondo ikusten nuen, eta justua, epaimahaiaren erabakia, baina nire erabakia beste bat izango zen, dudarik gabe. Mikrokosmos talde frantziarrak ia sari guztiak lortu zituen, merezimendu guztiekin. Talde sendoa da, primerako ahotsak ditu, batez ere gizonetzkoak, eta Loïc Pierre zuzendari aparta da. Musikaltasun osoz eraman zuen bere taldea eta, ondorioz, interpretazio

dotore eta doiak atera ziren. Baina ez nintzen talde horrekin maitemindu, ez zitzaidan gehiegi iritsi. Gauza bera gertatu zitzaidan ia abesbatza guztiekin, bat kenduta: Letoniako Emil Darzins Chamber Choir. Agian ez zen hain perfektua teknikoki, baina abesti baten interpretazioa nahikoa izan zen niretzat saritua izateko. Kanta horregatik jaso zuten aipamen bat, euskal obra baten interpretazio onenaren saria. Ez zen nahikoa izan, nire ikuspuntutik. Xabier Sarasolaren Maiteagoak obrarekin egin zuten interpretazio zoragarrian ikusi egin genuen talde honen eta besteen arteko desberdintasuna. Folklore modalitatean derrigorrezko abestia zen, eta, beraz, talde guztiek abestu ondoren, aukera eman zigun kalitateak neurtzeko. Letoniarren bertsioa oso ginetik geratu zen. Pena, aipatutako saria jasotako bakarra izatea.

Sari dezente irabazi zuen, aldiz, Japoniako Sugunami Gakuin Higu School and Kikuka Ensemble taldeak. Oso efektista baina, nire ikuspuntutik ez hain artista.

Talde zoragarria suertatu zen Kataluniako Cor amics de la unió abesbatza, haur abesbatzen modalitatean irabazlea, eta zorte gutxi izan zuen AEBetako CWU Chamber Choir taldeak. Abesbatza ona izan arren, ez zuen aipamenik jaso. Ulertu behar da hango estiloak eta eskolak ez dutela zerikusirik Europako tradizioarekin, baina haien freskotasuna eta dinamismoa preziatu beharko genituzke. ■



IZAKI GARDENAK

Poparen eta rockaren arteko mugan

IZAKI GARDENAK

GASTEIZKO JIMMY JAZZ ARETOA

AZAROAK 12

Hurrengo kontzertuak:

Azaroaren 20an: Jai-Zale taberna (Arrasate)

Azaroaren 27an: Victoria Eugenia Club (Donostia)



Jon Aranburu Artano

@jonaranburu



ARGAZKI PRESS

Ostegunetan Euskal Herriko taldeen kontzertuak jarrita, ez da jakiten inoiz jendea *Kutxitik* ateratzea lortuko duen taldeak, ala merezi baino jende gutxiagoren aurrean jo beharko duten. Kasu honetan, mugitu gintuen Izaki Gardena-ek; etxean jotzen ari ziren seinale.

Kontzertua *Aurri Gara* laneko lehen bi kantuekin hasi zen, eta horrek disko osoa segidan entzungo genuela pentsatzeraren eraman bagintuen ere, hirugarrenarako *Amaieratik hasi* lanetik tiraka hasi zen Jon Basaguren eta koadrila. Eta hemen hasi ginen nabaritzen aurreko bien eta aurkezten ari ziren lanaren arteko aldea.

Poparen eta rockaren arteko muga lauso horretan dago Izaki Gardenak-en soinua, eta *americana* etiketa zabala ere jarri izan zaio maiz. Bada, kaleratu berri duten *Aurri Gara* honetan poperantz gehixeago lerratzen dira kantuek. Eta nago horretan gitarra-jotzaile aldaketak eragin duela: Joseba Baleztena, lehengo gitarra-jotzailearen estiloa rockeroagoa

zen; oraingo Eneko Lezaren gitarra konponketak soilagoak dira, ez dira hainbeste nabarmentzen.

Kontzertuak aurrera egin ahala, disko guztietako kantuek joan ziren agertzen. *Itsasargi*akeko bakarra jo zuten, *Ni naiz* izenekoa, *americana* kutsu nabarmena duen kantua, eta publikoak taldearekin batera kantatu zuena. Jo ohi duten kanturik rockeroena, berriz, Hala Bedi Irratiaren 30. urteurreneko bildumarako egin zuten Ruper Ordorikaren *Ene begiek* kantua bertsioa, bakarka jo zuten Basaguren, ahotsarekin erakustaldia emanda. Bueno, ahots erakustaldia kontzertu osoan zehar egin zuen eta emanaldi guztietan egiten du Basaguren; izan ere, badu eta horretarako gairik.

Egia da, baina, taldearen hasierako kontzertuetan baino gutxiago "erakusten" duela, orain neurtuago dabilena. Diskoaren aurkezpenean hala esan zuen: "Zerbait erakusten aritu beharrean, zerbait on egin nahi nuen". Eta

ondo dabilazala, besteak beste, *Piztiak somatu gaituzte* kantuan nabaritu genuen, Jonen ahotsa Eneko Leza eta Libe Garcia de Cortazar teklatu jotzailearekin batu zirenean. Ze estribillo dotorea! Dударик gabe, diskoko eta kontzertuko kanturik borobilena.

Ordu bete inguru zeramatela, azken kantua iragarri zuten, eta *Horma eta haizea* kantua jotzeari ekin. Tom Petty! egin nion aldamenekoari; eta berak baietz, bazuela kutsua. *Aurri Gara*ko kanturik gitarreroena jo, Jimmy Jazzeko kamerinoetara sartu-atera egin, eta *Nora ezean* kantua agurtu gintuzten.

Amaitu berritan, beste pare bat kantu gustura entzungo genituen sentsazioarekin, salmahaira gerturatu eta diskoa eskutan, buelta kalera. Ondorengo egunetan, diskoa entzunda, zuzenekoan baino soinua rockeroagoa duela iruditut zait, eta ez da batere ohikoa. Agian, bigarren aurkezpen kontzertua izaki, gehiegi eutsi zioten... Beste kontzerturen batera zoaztenok, esango duzue. ■

Egilea: Ana Zambrano

Bertso-zopa

Osa ezazu Sebastian Lizasok 2013an Tolosan botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Bizia ez da nehoiz egoiten*. Gaia: Zoriontsua izateko zer behar da?

Inork ez daki nun egon leiken
zorionaren _____
ta ez badator alperrikan da
_____ bila joatea.
Nahiz ta lortzeko hemen bakoitzak
daukagun _____
ez da nahikoa sasoia eta
kartera _____ betea
balio duna daukagunakin
geu konforme _____. (bis)

Hainbeste amets izaten dira
zorionaren _____
eta noizbaiten bete ezker
norberetzako _____.
Zeure buruai galde lehenbizi
"Aizu _____ al zaude?"
eta seguru izango dala
zoriontasunan _____
berak nahi duna egiten duna
inoi _____ eman gabe. (bis)

Zoriontsua izan _____ hori
degu bakoitzan ardura
eta bakoitzak _____ behar
tokatzen zaion _____.
Utzi albora inbidia ta
gorrotoaren lotura
ta zoriontsu _____ dela
denok erori kontura
ingurukoei eman ezker
_____ sentitze'un hura. (bis)



Bertsolari aldizkaria

N	A	T	Z	E	T	I	K	C	A	E	C	X	J	X
R	B	J	E	S	M	C	N	E	B	I	L	A	T	U
L	V	T	H	M	T	L	K	A	R	E	B	R	O	N
M	M	O	D	U	R	A	C	L	S	I	P	Z	T	B
M	F	T	N	T	G	O	D	E	X	V	J	J	Z	R
I	B	A	I	P	C	V	F	S	A	E	T	O	G	E
N	H	T	J	U	G	O	D	N	Z	U	R	I	D	G
I	Z	U	T	A	B	E	A	V	O	J	R	C	E	S
K	L	N	M	H	J	O	C	J	H	K	L	M	D	O
B	O	R	O	N	D	A	T	E	A	O	L	P	E	D
N	I	E	C	P	U	L	I	H	I	B	E	B	S	S
O	E	Z	I	M	S	I	S	O	R	U	E	Z	E	V
J	V	Z	H	E	R	F	U	B	X	R	U	V	M	S
X	F	X	U	Z	T	D	T	H	R	L	C	R	R	D
G	A	B	U	I	V	B	I	Z	I	K	O	U	M	G
B	P	J	V	N	O	H	X	H	B	C	C	I	T	P

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										

Ezker-eskuin:

1. Indar gutxikoa. Nekazariaren lanabesa.
2. Pila, mordo. Zikoitz, zeken. 3. Zalantza partikula. Pinu mota. Sozietate Mugatua. 4. Samurtasunez.
5. Bertsolari. 6. Odol-taldea. Du, berari. Barazki hostotsua. 7. Adartxo berria. Harro. 8. Harremana, erlazioa. Salneurri, kostu.

Goitik behera:

1. Zenbait ugaztun handiren oina osatzen duen adarkizko azal lodi. Alkandoraren gainean jantzen den jantzia. 2. Goibel, triste. Errepika adierazten duen aurritzia. 3. Ileak (bizkaieraz).
- Hirugarren musika nota.
4. Gauero egin ohi duguna. Era, moldea. 5. Itsas arraina, beraren haragia oso preziatua da.
6. Besteetatik bereizten den ile multzo. 7. Kontra. Laugarren musika nota. 8. Rhesus faktorea. Urteko bederatzigarren hil.
9. Euskal domeinua. Pinazeoen familiako zuhaitza, Eguberrietan apaingarri gisa erabiltzen dena.
10. Erasorako erabiltzen den edozein tresna. Garai, denbora, sasoi.

Sudokua

Erraza

2					8	1		
			1	4		3	8	
				3	7	5		6
7			9				6	
				1				
	8				6			1
4		1	3	6				
	9	5		8	1			
		2	4					3

Zaila

		3						7
		6		1	3			
4		8			7	3		
5		2					7	
	8	7				4	2	
	9					1		8
		9	7			6		3
			2	4		8		
8						7		

Soluzioak

Inork ez daki nun egon leiken /zorionaren atea /ta ez badator alperrikan da /atzetik bila joatea /Nahiz ta lortzeko hemen bakoitzak daukagun borondatea /ez da nahikoa sasoia eta /kartera diruz bete /halio duna daukagunakin /geu konforme egotea /Hainbeste amets izaten dira /zorionaren zutabe /eta noizbaiten bete ezker /norberetzako mesede /Zeure buruai galde lehenbizi /"Aizu konforme al zaude?" /eta seguru izango dala /zoriontasunan /jabe /berak nahi duna egiten duna /inoi minik eman gabe /Zoriontsua izan nahi hori /degu bakoitzan ardura /eta bakoitzak bilatu behar /tokatzen zaion modura /Utzi albora inbidia ta /gorrotoaren lotura /ta zoriontsu biziko dela /denok erori kontura /ingurukoei eman ezker /norberak sentitze'un hura.

N	A	T	Z	E	T	I	K	C	A	E	C	X	J	X
R	B	J	E	S	M	C	N	E	B	I	L	A	T	U
L	V	T	H	M	T	L	K	A	R	E	B	R	O	N
M	M	O	D	U	R	A	C	L	S	I	P	Z	T	B
M	F	T	N	T	G	O	D	E	X	V	J	J	Z	R
I	B	A	I	P	C	V	F	S	A	E	T	O	G	E
N	H	T	J	U	G	O	D	N	Z	U	R	I	D	G
I	Z	U	T	A	B	E	A	V	O	J	R	C	E	S
K	L	N	M	H	J	O	C	J	H	K	L	M	D	O
B	O	R	O	N	D	A	T	E	A	O	L	P	E	D
N	I	E	C	P	U	L	I	H	I	B	E	B	S	S
O	E	Z	I	M	S	I	S	O	R	U	E	Z	E	V
J	V	Z	H	E	R	F	U	B	X	R	U	V	M	S
X	F	X	U	Z	T	D	T	H	R	L	C	R	R	D
G	A	B	U	I	V	B	I	Z	I	K	O	U	M	G
B	P	J	V	N	O	H	X	H	B	C	C	I	T	P

2					8	1		
			1	4		3	8	
				3	7	5		6
7			9				6	
				1				
	8				6			1
4		1	3	6				
	9	5		8	1			
		2	4					3

2					8	1		
			1	4		3	8	
				3	7	5		6
7			9				6	
				1				
	8				6			1
4		1	3	6				
	9	5		8	1			
		2	4					3

2					8	1		
			1	4		3	8	
				3	7	5		6
7			9				6	
				1				
	8				6			1
4		1	3	6				
	9	5		8	1			
		2	4					3

Viviane Michel. Quebeceko Emakume Autoktonoen federazioko burua



Isilean atxiki nahia plazaratzen dabil Viviane Michel. Ahal duen aldi oro galdera berdina luzatzen dabil: “Nolaz hainbeste emakume autoktono desagerturik edota erailik? “. Erantzuna argi du: arazoa sistemikoa da eta kolonizazioaren emaitza da. Baina erantzuleen ahotik entzun nahi du erantzuna.

“Gobernuak planteaturiko bortizkeria sistemiko eta instituzionala bizi dugu”



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Jenofa Berhokoirigoin

Iratzarria

Lehen alaba sortu ondoren sartu nintzen Quebeceko Emakume Autoktonoen Federazioan. Emakume autoktonoen erronkez ohartu nintzen orduan. Ordura arte ez nekizkien, ala zerbait entzun arren, horiei buruzko kontzientzia ez zitzaidan oraindik iratzarria.

Erronkak autoktono gisa, erronkak emakume gisa eta bi identitateak batuz, erronkak emakume autoktono gisa.

Bai, argi da. Bi zapalkuntza horiek pairatzen ditugu egunerokoan. Adibide argienetarikoa dugu emakume autoktonoen desagertpena ala erailketena. Autoktonoak gara eta gainera emakumeak. Arazo honen berri ematean diskriminazioa eta arrazismoa jasotzen ditugu erantzun gisa.

30 urtez, 1.100 emakume autoktono erailik ala desagerturik Kanadan.

1.186 hain zuzen. Problematika larria dugu hori eta ezingo dugu konpondu gobernuak egoerari seriozki begiratuko ez dueino. Badu urteak inkesta publiko bat eskatzen gabiltzala, argitzeko nolaz eta nola neska autoktono gazteak desagertzen diren. Inkestak argira ekarri lezake ere komunitateetako egoera orokorra: gainpopulazioa, etxebizitzaren urritasuna, bortizkeria eta abar. Guztia lotua da, anitz emakume doaz komunitateetatik, anitz dira ere droga kontsumoan erortzen eta horren haritik pros-

tituzioan. 1.186 emakume desagerturik ala erailik. Eta haien buruaz beste egiten dutenak, zer? Erantzunik gabeko desagertpenak dira horiek ere.

Kanadako Jendarmeriaren zenbakiak dira horiek.

Iaz plazaratu zituen zenbaki horiek. Baina adibidez, Quebeci doakionez, zenbakiak oso ñimiñoak ziren, haien zenbakia anitzez gainditzen dugu. Dena dela, guk ez dugu ikerketa kuantitatibo bat nahi, zenbaki gehiegi daude. Bizi batzuez ari gara, lapurturiko bizi batzuei buruz! Bizi horietaz hitz egin nahi dugu, desagertu eta erail horien familiei buruz. Drama horien giblean gordetzen diren arazoei buruz hitz egin nahi dugu.

Arazoa sistemikoa da.

Argi da eta kolonizazioaren emaitza da. Gure bizia ez da gure esku, gure bizimodua ez da gurea, antzetzuz bizirauten saiatzen gara. Gobernuak planteaturiko bortizkeria sistemiko eta instituzionala bizi dugu egunerokoan.





"Anitz emakume doaz komunitateetatik, anitz dira ere droga kontsumoan erortzen eta horren haritik prostituzioan. 1.186 emakume desagerturik ala erailik".

Barnetegiengertakizun lazgarria ezin ez aipa.

Kolonizazioaren historia ezin dugu aipatu barnetegiengertakizun desmasia aipatu gabe [1820 urtetik 1996 urtera, Kanadako gobernuak autoktonoen umeak familiei bahitu eta barnetegiengertakizun ezarri zituen, haien asimilatze eta ebanjelizatze]. Hamabost ala hogeitaz urte pasatzen zizuten bertan umeak, haien familietatik erabat urrundurik. Eraso fisikoak, psikologikoak eta sexualak jaso zituzten. Haien hizkuntzaz hitz egitea debekatua zitzaien. Haien larrua torratu behar zuten, zuria bilaka zedin. Ikaragarriko kolpea zen barnetegiengertakizun. Gobernuak gure desagertzearen zuten xede, genozidioei pentsarazten dit. Barnetegiengertakizun itzultzeak ere drastikoak izan ziren, umeak gurasoekiko amorrua eta aiherkundea bizi zutelako eta gurasoek berriz kulpabilitate sentimendua zutelako.

Baina diozun gisara, zeini interesatzen zaio zuten errealitatea?

Horregatik ere legoke interesgarria inkesta publikoa. Lehen Nazioek dutelarik

zer edo zer adierazten, inor ez delako parean, gurea entzuteko ala mezua pasarazteko.

Erailketen %60 eta desagertzearen %70 hirietan gertatzen dira, gutxiengoa berriz komunitateetan. Erasotzaileak nor dira?

Nahiko nuke erantzuna jakin. Azken hogeitaz urteetan problematika berri batzuei aurre egin behar dugu; hirietan antolaturiko emakumeen salerostea da horietatik bat. Kitorik den bortizkeria bati zabaltzen dizkio ateak eta bistan da, emakume autoktonoek jopuntu hobereena gara harrapari horientzat. Adibidez, Kichianchigi komunitateko bi neska desagertzearen proxeneta batzuek burutu zutela argitu digu berriki Justiziak.

Nola doa justizia?

Oso poliki, poliki.

Gobernuak zergatik ez du inkesta publikorik nahi?

Inkestak erakutsiko lukeelako Kanadak ez dituela Lehen Nazioei begira dituen betebeharrak betetzen. Ahantzirik eta

lurperaturikoa den populua gara. Ez dut biktima batentzat pasa nahi. Badu mendeak ezagupena aldarrikatzen gabiltzala, eta oraindik gabiltza aitortzarik gabe.

Autodefentsa estrategiak zein dituzue?

Problematika horri buruzko sentsibilizazio eta hezkuntza lan handia egiten dabilta anitz emakume. Martxak, manifestazioak, tailerrak. Autodefentsa tailerrak ere egiten dira komunitate batzuetan. Autoktonoen esku ez diren egiturekin aliantzak egiteko asmoa ere hor dugu. Desagertuen ala erailen familiak elkartzeko ziren iragan apirilean. Oso positiboa izan zen topaketa. Noski, haien pena elkarrekin partekatu ahal izan zuten. Baina, ez genuen terapiari mugatu nahi, sare bat osatu zuten haien artean. Urrats-bide judizialari buruzko aholku eta jakintza partekatze anitz izan zituzten. Elkartekoei ere gomendio batzuk eman zizkiguten. Haien toki propioa ukan nahi dute borroka honetan, gurekin batera ibili nahi dute. Ez dute nahi haien izenean mintza gaitzen. Horretan gabiltza. ■



Artur Mas Euzkadiko lehendakari izaten saiatuko da: EH Bildu kastañuelak jotzen

CUPEk Kataluniako president izateko jarri dizkion trabekin nazkatuta, buruzagi convergenteak gainezka egin du. "Akabo", adierazi die bere aholkulari, idazkari eta maiordomoei, "Euzkadira noa, han baloratuko naute behar den bezala". EH Bildu koalizioak txalotu egin du Masen "erabakimen eta prestutasuna". Negoziazioak aurrera-

tuta daude 2016ko hauteskundeetan EH Bildu-Mas aliantza aurkezteko. Ezker abertzaleak egin dituen kontzesio bakarrak Masi %3ko komisio batzuk onartzea eta 100 birjinekin lehen gaueko eskubidea praktikatu ahal izatea dira. "Ez dugu ulertzen CUPEk nola egin dion uko gudari honi", azaldu dute koalizioko iturriek.



Peio ez, Pedro da etarra gaizto-gaiztoa

El Correo egunkariak barkamena eskatu du Peio Sanchez iruinseme ETako buruzagietan buruzagiena zela zioen informazioa argitaratzegatik. Honela azaldu dute gertatutakoa: "Euskaltzaindiarekin hitzarmena sinatu genuenez geroztik erredakzioa euskalduntzen gabilta jo eta ke; Ertzaintzaren inteligentzia zer-

bitzuek bidalitako oharrari ukitu jatorra eman nahi izan genion, eta...". Azkenean dena argitu da: Peio ez, Pedro Sanchez PSOEko idazkari nagusia da ETako buruzagi berria, goiko argazkiak frogatzen duenez. *El Correo* ez da dimisiorik aurreikusten, baina bekaduna bota dute. Leihotik behera.

Lasarteko PSEk errausketari bai, baina Sirian edo

Joan den asteartean Lasarte-Oriako PSEko zenbait zinegotzi ospitaleratu zituzten koherentzia gaindosi baten erruz. Udaltzatzen hondakinei buruz hitz egin ondoren gertatu zen: sozialistek zaborren errausketa babestu zuten EAJ eta PPrekin batera. Minutu batzuk geroago, beste mozio bat aurkeztu zuten errauskailua Zubietan eraikitzearen kontra. "Badakit zaila dela gure jarrera ulertzea", azaldu du zinegotzietako batek ospitaletik irtetean, "baina sinetsidazue, gu ere ahalegin handia egiten ari gara eta lortzeko zorian gaudela uste dut".

Eusnob Biltzarrak: "Bataclaneko kontzertua oso mainstream zen"

Aldizkari honetara igorritako ohar baten bidez, Euskal Herriko indie, hipster eta pastabetaurrekodunak biltzen dituen Eusnob Biltzarrak kondenatu egin ditu Parisen azaroaren 13an izandako gertakariak: "Kontzertu mainstreamak antolatzek arriskuak ditu. Ertz festibalera joaten diren 10 pertsonekin ez zen inoiz halakorik gertatuko".

SAREAN ARRANTZATUA

Bizidulantzia



ARGIAKOEN (G)UNEA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilerio ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

**Azaroaren 25etik
aurrera martxan!**

| **OROIMEN HISTORIKOA**
| **INGURUMENA**
| **EUSKALTZALETASUNA**
| **ELIKADURA BURUJABETZA**
| **INDEPENDENTZIA**
| **PAREKIDETASUNA**
| **DEMOKRAZIA ZUZENA**
| **DESOBEDIENTZIA ZIBILA**
| **GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA**
| **HERRIEN MUNDUA**
| **ERABAKITZEKO ESKUBIDEA**
| **SEXU ASKAPENA...**

GUNEAN PARTE HARTU

- Zozketa hilean behin egingo da eta parte-hartzaile bakoitzak, eskaintza bakoitzeko, behin bakarrik eman ahalko du izena.
- Parte hartzeko bide hauek dituzue: www.argia.eus/gunea helbidean sartuta, gunea@argia.eus-era idatzita eta 943 37 15 45 telefonora deituta.
- Sarien irabazleen zerrenda, hileko azken zenbakian argitaratuko da eta azken astean webgunean. Zozketetan parte hartzeko azken eguna aurreko asteko osteguna izango da.
- Parte hartzeko Argiako erabiltzaile gakoa beharko duzu.

ZOZKETETARAKO MATERIALA ESKAINI

ARGIAko baloreekin bat egiten duen herri eragile, jendarte mugimendu edo kolektibo bateko kidea bazara eta GUNEAn zure material edo zerbitzua eskaintzeko prest bazaude, jarri gurekin harremanetan gunea@argia.eus emailera idatzita edo ARGIAra deituta.

Ze onura dakartza eragileontzat GUNEAn parte hartzeak?

- Kaleratutako materialari bide ematea.
- Eragilearen lana ezagutarazi eta jendarteratzea.
- Edukien zabalkundea egitea.

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com